

Danspirenaika, jantza astegoiena hilaren 4, 5 eta 6an

Jantza ikastaroak, tailerrak, erromeriak, mazurka klandestinoak, bazkari herrikoia, jantzapoteoak eta alkar ezetu eta jantzan egiteko aukera ugari izango dabe izena Danspireneikan emon daben ehun baino gehiago jantzazaleek. Izan be, apirilaren lehenengo astegoienean Aikok Areatza jantza tradizionalaren uriburu bihurtuko dau. Euskal jantzez gainera, Pirinio inguruko beste herrialde batzuetako jantzak be ikasiko ditue bertaratutakoek, Aragoikoak esate baterako. Topaketea eskoletan izango da. **17. orrialdea**



Kotxea nagusi da herritarren mobikortasunean baina alternatibaren eskaera handia dago

TOKIKOMek eta EITBk alkarlanean aztertu dabe personaren mobikortasuna Saretzen proiektuaren seigarren alean.

Arratian agenda politikoan eta pil-pilean dagoan gaia da hau. Izan be, gure eskualdean, garraioa publikoak ez ditu herritarren beharrak asetzen; esate baterako, unibersidadera joateko zuzeneko zerbitzua, eta Arratiako herrien artean eta Lemoako tren galekuraino autobusen sarritasun handiagoa, esate baterako. Aspaldiko aldarrikapena be bada herrien arteko bidegorria, bizikleta erabiltzaileen segurtasuna handitzeko.

Egoereaz jaubetuta, Arratiako Udalen Mankomunitateak eskualdeko uri mobikortasun jasagarriaren diagnostikoa egingo dau eta parte hartzeako galdetegi bat zabaldu dau herritarrek beteteko. Gaiaren inguruan mozinoak sartu ditue unibersidadeko ikasleek, EAJ-PNVk eta EH Bilduk. **8., 9., 10. eta 11. orrialdeak**



LEMOA

Saioa Elejabarrieta, Batzar Nagusietan

Saioa Elejabarrieta Amorrortu lemoaztarra, martiaren 19an hasi zan Gerrikako Batzar Nagusietan batzarkide, Idoia Buruaga Barcena elorriotzarren orde. EH Bilduko Arratiako batzarkide bakarra da. Saioa Elejabarrieta Lemoako alkate izan zan hiru legegintzalditan. **7. orrialdea**

ARRATIA/ZEBERIO

Irakaskuntza publikoak greba egin eban beste hiru egunez

Bezperan sindikatuek eta Eusko Jaurilaritzek negoziatzino luzeak egin arren, ez zan akordiorik lortu eta Irakaskuntza publikoko irakasleek greba egin eban martiaren 25, 26 eta 27an. Arratia eta Zeberioiko ikastetxeetan, batez beste, irakasleen %71k egin eban greba. **7. orrialdea**

DIMA

Bakearen Lore Gara memoria historikoko ekimena, bonbardaketea ez ahaztuteko

2017tik antolatuten dau Dimako Txumulueta Kultur Elkartek, Bakearen Lore Gara, 1937ko apirilaren 6an, faxistek Dima bonbardeau ebela gogora ekarteko. Aurten, jarduerak apirilaren 3an hasiko dira euskerearen memoria historikoaren inguruko Aitzol Altunaren berbal-diagaz. Bonbardaketearen 88. urteurrenean, bariz, ekitaldi instituzionala egongo da 12:30ean, frontoi txikian, lore eskaintzeagaz eta 17:00etan, Dimako ermitek kanpaikadak joko dabez gertakaria oroituteko. **5. orrialdea**

MATRIKULAZIOA

- ADIN MUGARIK GABE

2025 / 2026 ikasturtea

- BANAKA - TALDEKA

eingo

kultura eta tradiziozko hezkuntza



679 417 353
IGORREN - GARBEN



@eingotar@gmail.com

- MUGIMENDUTIK DANTZARA

- TRIKITIXA / PANDEROA

- PERKUSIO TRADIZIONALA

pandero karratua, atabala, txalaparta, tanborra...

- PLAZAKO DANTZA

gazteen taldea - helduen taldea

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zerbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zerbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (LXV). Kale berbakunea sustatu guran

KARLISTADAK (II)

- XIX. mendean, Euskal Herrian Foruak bizirik **yegoazan**.
- Zer **zoazan** Foruak?
- Hemengo lege zaharrak **zoazan**.
- Esate baterako?
- Euskaldunok odol bereziko konsiderauta gengoan eta Hidalguia Universal Vasca izeneko lege bat **yegoan**.
- Eta horrek zer esan gura **yoan**?
- Euskaldunok ez **giñoan** zergarik ordaindu behar, aduanea Ebrotik behera **yegoan**.
- Ezeik** esan!
- Eta euskaldun jaioteagaitik zaldun titulu noblea jasoten **zoan**. Hori **zoala**-ta ez **giñoan** soldadiskarik egin behar.
- Eta zer gehiago?
- Basoetako egurraren ustiapena herri baktokxarena **zoan** eta baktokxak behar **yeuan** ahala hartzean **yoan** egurra...

ERETXIA

Aurtengo leloaren arrakastea

Martiaren 8ko kanpainaren harira zenbait burutazio mahaigaineratu gurako neukez, eztabaidagai izan leitekezalakoan:

1- Zalantza barik poza eta esperantzea emoten dau hainbeste masa kritikoa batu izanak aurtengo kanpainako leloaren ingurura: Ni ere feminista naiz. Sekula pentsau genduana baino bilakaera positiboagoa egin dau alde horretatik andren burruka eta ahaleginari esker aurrera eroaniko mobimentuak.

2- Kontuz ibili beharra daukagu oin zuriketa moreagaz ze marketinak segiduan bihurtzen dauz konsumogai eta saltzeako bide gure lelo eta kontzeptuak. Larregi banalizetearren arriskua be egon daiteke politikoki zuzenaren izean edozertan eta edozertarako erabili ezker, holan azkenean berbek galdu egiten dabe euren zentzua eta.

3- Esango neuke arrakastearen kakoa feminismoak urteotan gizarteratutako gai baten datzala: andrenganako biolentzia. Biolentzia horren kontrako burrukea bere egin dau gizarteak, honetan konsenso sozial osoa lortuta; izan be, eskoi muturra konsenso hori apurtzen ahalegindu bada be, gizarteak orokorrean, bai instituzinoek, bai gizarte eragileek, bai norbanakoek, irmo erantzuten deutso bloke bateratua sortuz.

4- Kontua da biolentziaren gaian gehiengo ados bagagoz be, feminismoa hori baino gehiago be badala eta erronka handia dala gorago aitatu dodan masa kritikoa formetea, pausu bat gehiago emon daigun: "Ni ere feminista naiz" esan dabenek kontzientzia feministea hartu dagien; identitate feministatik kontzientzia feministara pasau daitezana.

Ze Maria Gorosarrik esaten dauan moduan badagoz identitate feminista daukien andrak (feminismoa, feminista naz andra



MAITE ARTABE URKIRI

Feministea

nazen aldetik, esatera mugatzen dabenek), sentimentu feminista daukien (ez dabenek sistemaa kuestionetan, bakarrik sortzean deusien ondoeza adierazoten dabenek) eta kontzientzia feministea daukien (konpromiso ideologikoa eta koherentzia norbere bizitzagaz erakustez gainera, sexismoaren kontrako eguneroko burrukan dabizenak). Uste dot kontzientzia feministea hedatzea eta egunotan ikusi dogun masa kritikoa bereganatzea beharrezko dogula feminismoaren helburuak beteteko eta esango neuke bilakaera horretarako kakoa formazioa izan leitekela.

5- Formau esaten dodanean Feminismoari buruzko gaietan formau esan gura dot, ze azkenaldi honetan zenbait ingurutan garrantzi handia, handiegia nire ustez, emon jako enpoderamentuari, batez be andreari berari, norbanako moduan, eta bere garapen eta osasun mentalari bakarrik begiratu, feminismoa psikologizauz eta bere alde sozial, justiziazko eta politikoa ahaztuz.

Formazinarako hainbat liburu, artikulu eta lan erabili leitezke eta ikastaro edota jardunaldiak be badagoz han hemenka. Artea be erabili leiteke, martiaren 8aren inguruan antolatu diran antzerki, bakarrizketa, erakusketa, pelikula emonaldi, eta abarrak horren adibide.

Igual ondo legoke liburuen zereendaren bat plazaratzea andren alkarteek edo instituzinoek eta inguruko ikastaro, jardunaldi eta ekintza artistikoez gehiago informetea aukerea dagoanean.

6- Formazinoaren kontua dala-ta penaz eta haserre puntu bategaz hartu neban Arratiako Jabekuntza Eskola bertan behera geratu zaneke barria; ointxe, nire ustez hain beharrezko dan unean, bertan behera geratzea ez da kontu hutsala. Bai instituzinoek bai mobimentu feministeak ahal dabene guztia egin behar leukie barriro martxan ipinteko eta merezi dauan garrantzi eta bultzadea emoteko. Modu berean Arratiako Andren Etxea sortzea be onurgarri izango geunke Arratiako feministen sarea indartzeko.



LUMATUTEN



XABIER LAMIKIZ

Trump 2.0

BEGITUREN 267. alerako egia-osteari buruzko hausnarketa labur bat idatzi neban 2017ko zezeilean. Donald Trumpek, egia-ostearen apostoluak, 12 egun erioazan Estatu Batuetako presidente izaten. Hurrengo lau urteetan astakeria itzelak entzun eta ikusi behar izan genduzan munduko herritarrok. Harritzeko gaitasuna be xahutu euskun. Gero, Joe Bidenegaz, gauzak guztiz baretu ziran. Bidenek sarritan esan eban Estatu Batuen historia politiko luze eta korapilatsuan Trump *blip* bat besterik ez zala izan, barriro gertatzeko aukerarik ez eukan holango istripu *freaky* bat. Aurreikuspenak egiteko gaitasun ederra Bidenek. 2025eko udabarrian gagoz eta itzuli da ezizenak ipinteko (Sleepy Joe, Fat Jerry, Nervous Nancy, Cheating Obama, Meatball Ron, Crazy Kamala...) trebezia berezia daukan presidente ahoandia.

Ez dirudi Trump 2.0 aurre-

ko bersinoaren errepikapena izango danik. Kongresuan eta Senaduan podere handiagoa dauka oingoan, eta, aurrekoan ez bezala, nazinoartean eragin berezia daukien ebatziak hartzeako gogotsu dabil. Hilebete biz presidente eta daborduko mundua hankaz gora ipini dau: mugasariak gora, etorkinak kanpora, Europari bizkarra emon, Putinengana hurreratu eta abar. Itxuraz behintzat, gauzea hasi besterik ez da egin. Noz arte? Hedabideek barri txarrak esajertako berezko joerea daukie. Ezin dabe ekiditu. Badirudi hurrengo pausua ezinbestean apokalipsia izan behar dala. Eta hori ez bada, gitxik pentsetan dabe mundua betiko aldatu ez danik.

Nik ikuspegi optimistagoa daukat. Trumpek aurrekoan baino podere gehiago daukalako bere akatsak aurrekoan baino begi-bistakoagoak izango dira. Izaten dabiz. Oingoan bere hautesleak be jaubetuko dira horretaz. Bidenen gobernuari kalte gehien egin eutsana inflazioa izan zan. Trumpek hartu dituan neurriek prezioak oindino gehiago puztuko ditue. Hori ez deusie parkatuko. Trump ez da *blip* bat historian, *blip* bi baino.

ZERTZEAN



IRATI ASTONDOA

Gaia jarrita: "Agur osaba Juantxo!"

1

Gorbeie zuri itxartu jakun zure azken arnasagaz bat Lekandapeko zelai berdeak ta Potxoletako baldak hainbet urtean ardi jamoten pasaez negu ta udak Andramortuko txabola ilun itxi dau zure galerak eskerrak bertan parauko diren zure istori ta esakerak.

2

Txabolan zeinbet istori itxi ete dozuz ixilean baina zoriontsu bizi izan zinen ardiekaz epelean pastore fina mendi zaindari onean eta txarrean Botxoan zeinbet bazkari luze zure lagunen artean Gorbeiek beti aukiko zaitu presente Lekandapean.

3

Sasoi beteko pertsona zinen abile arlo askotan txakolin jantzan egiten zendun Zeaniko hainbet auzotan eskiek probau ahalagaz kopa irabaziz mutikotan Amabirjina kurutzerraino eroan zindun besotan egin dozunek mantendu zaitu luzero danon agotan.

4

Eskertutea gelditan jaku emondako danagaitik osaba Juantxo berezi izin zara gutzat betidanik txapela eskuen dala betiko joan zara gure artetik zauzen lekuen seguruenik han be ezara ongo ixilik Gorbeien barriz ezta egongo zulako fenomenorik.

BEGI TXINDORRA

Martiaren 23an, inaugurau zan Juanma Nogalasen arte galeria Zeanuriko plazan, frontoi ostean. Iniziatiba partikularra da eta Juanmak bere argazkiak erakusteko zabaldu dau, baina gura dauanari bere artelanak erakusteko aukerea be eskaintzen deutso.

Momentuz, jaubearen argazkiak dagoz ikusgai: paisaiari, harriari eta zugatzei buruzko argazkiak.

Erakusketa aretoa zabalik egoten da eguenetan eta barikuetan 17:00etatik 19:00etara, eta zapatuetan eta domeketan 12:00etatik 14:00etara.

Jon Urutxurtu



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bikaina
T. 94 631 50 39
Ikalgaitza Zerbitzua: 901
R.P.S. 31/06

IGORRE

18 urtetik gorako kintoek euren eguna ospatuko dabe apirilaren 12an

Erredakzioa

"Kinto lagune hau da zure egune" lelopean, lehenengoz ospatuko da Igorren kintoen eguna. Helburua, kintada guztiak batzea da, eta horretarako hainbat ekintza antolatu ditue. Ha-ta guzti be, kintada bakotzak bere kabuz egitekoak be badagoz; esaterako, bazkaria; izan be, kintada bakotzak bere aldetik egingo dau, gura dauan moduan.

Lehenengo urtea da, baina ospakizun hau betiketzea gurako leuke Udalak; data zehatz baten, San Kristobal, San Juan edo Inbiu Egunak legez egotea, hain zuzen be, Ainara Ipiñazar zinegotziak BEGURI azaldu eutsanaren arabera.

Egitaraua

Aprilak 12, zapatua

11:00etan, *photocalla* kintoakaz Kultur Etxeko plazan.

12:00etan, Ardoa Barrura fanfarea, Kultur Etxean hasita.

14:00etan, On egin! (kintada bakotzak gura dauan moduan).

17:00etan, Ardoa Barrura fanfarea herrian zehar.

20:30ean, Gauargi erromeria Elexalde kalean.



LEMOA

Elkarretaratzea egon zan enpresa aurrean hildako beharginaren hurrekoei doluminak eta solidaridadea adierazoteko

Erredakzioa

Martianen 19an egin zan elkarretaratzea Amuriza Teilatuak enpresearen aurrean, bertako langilea zan-ta egun bi lehenago lan istripuz hildakoa. 62 urteko gizonetako zan, Arratzuko base-ri bateko teilatuan lanean zala, elektrokutauta hil zana. LAB, ESK, STEILAS, EHNE-etxalde eta HIRU sindikatuek deituta, "Patronalak eta instituzioek gaixotu eta hiltzen gaituzte" lemapean egin zan elkarretaratzea. Heriotz horregaz, urtea hasi zanetik Hego Euskal Herrian 14 hildako izan dira, sindikatuen arabera. "Guk oso argi daukagu lan istripuak ekidin daitezakela, badakigu istripuen ia %100a ekidin daitezakela. Zelan? Lan prebenzinoan arreteta ipinita, enpresetan ikuskaritza handiagoa ipinita. Horrek eskatzen dau instituzinoen aldetik esku-hartze zuzena eta prebenzino" azaldu

deutsie BEGURI sindikatuetakordezkariek. Horren ordez, "zabaltzen dabil absentismoaren inguruko eztabaidea erantzukizuna langileongan ipinteko, hiltzen diranak eta gaixotzen diranak langileak diran arren".

Baina honeri bueltea emon eta lan istripuak amaitu daitezakela uste dabe. "Oso argi daukagu, aukerea dagoala honeri guztiari bueltea emoteko. Printzipioz, pa-

tronalaren aurrean planto bat egin gura dogu eta horren adierazle da gaurko konzentrazioa. Iraili gura dogu sistema hau, eskaintzen deuskuen sistemeak gaixotu eta hiltzen gaitualako. Uste dogu instituzinoek ez dabela lagunduten, patronalari eskuak libre ixten deutsezalako ezer ez aldatzeko. Zentzu honetan pentsetan dogu gizartea mobiduteak ekarri leikela aldaketea, ekarri leikela iraulketea".



ARRATIA

Jentetzeak hartu eban Igorren antierrazismoaren eta antifaxismoaren aldarria

Erredakzioa

Martianen 21ean, Errazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Egunean, ehundaka persona urten ziran kalera, Arratiako Sare Antirrazistak egindako deialdiari jarraituta. Manifestazioa, eskualdean "indarra hartzean dabiz jarraera errazistei" aurre egiteko deitu eban sortu barri dan sareak martianen 13an Lemoan egindako agerraldi publikoan. Holan, Arratiako herri guztietatik etorritako jentea manifestazioan urten zan, etorkinen eskuetan egoan "Bildurren kulturaren aurrean, Arratie antirrazista" inoan pankartearen ostean.

Igorreko kaleak "kulturartekotasunaren" alde eta faxismoaren zein errazismoaren kontra zeharkatu ebazan manifestazioa lasaia eta sano anitza izan zan, adin eta jatorri guztietako jentea hartu eban parte eta. Baina deialdiaren indar nagusia, Arratiako Sare Antirrazistaren manifestuari atxikitu ziran 60 bat eragileengan egon zan: mobimentu feministako taldeak, kultur alkarte eta taldeak, gazte mobimentuko talde eta gaztetxeak, kirol taldeak, alderdi politikoak, guraso alkarteak eta abar.

Manifestazioaren amaieran egindako ekitaldian, euskeraz, gaztelaz eta arabieraz irakurri eban antolatzaileek sarearen manifestua. Bertan, salatu eban "pobreziak eta segregazioak ekarritako problema batzuk errazakeria, gorrotoa eta politika punitibistakaz konponduteko ebatzi oker eta ankerra hartu" dala. Izan be, zehaztu eban Lemoako Udalak "kaleratzeak, kontrol soziala eta jazarpen poliziala" erabili dauala eta Igorreko Udala, bide bardinean dabilela. Honen aurrean, argi itxi eban "benetako konponbidea bestelango bideetatik datorrela" eta "segurtasunaren aurkako mehatxuak, prekarizetan gaituen sistema ekonomikotik datorrela, ezelan be ez, historikoki diskriminatuak izan diran kolektiboen partetik".

Holan, urtenbidea "pobrezia eta segregazioa gaituzteko bitartekoak" ipintetik pasetan dala aldarrikatu eban: "Heritar guztiontzako oinarriko bizi baldintza duinak bermatuta egon behar dira". Alde sozioekonomikotik harago be, "kulturartekotasuna bultzatu" behar dala be aldarrikatu eban, "politika inklusibo eta ez baztertzailak martxan" ipinita.

DIMA

Ermitetan kanpaiak joz gogoratuko dabe 1937an herria bonbardeau ebela

Erredakzioa

Dima 2016an hasi zan memoria historikoa landuten eta 2017tik Bakearen Lore Gara izenpean, hainbat ekitaldi antolatuten ditue, 1937an herria faxistek bonbardeau ebela ez ahaztuteko eta errepetidu ez daiten. Holan urtero lez, apirilaren 6an, 17:00etan, Dimako ermitetako kanpaiak joko ditue, herritarrak, oin dala 88 urte izandako bonbardaketearen jakitun egoteko.

Ez da egun horretarako Txumulueta Kultur Elkartek antolatutako ekintza bakarra. Goizean, 12:30ean, ekitaldi instituzionala egongo da frontoi txikian. Han, lore eskaintzea egingo jakie bonbardaketearen eta frankismoaren biktimei eta *Euskararen galbide mugarren* aurkezpena egingo da.

Izan be, sasoi haretako bes-

te biktime bat euskerea izan zan eta hori hartu dabe gaituzte aurrean Bakearen Lore Gara memoria historikoen ekimenean. Holan, aurreko egunean, apirilak 3, 19:00etan, Aitzol Altunak *Euskararen memoria historikoa* izenpeko berbaldia emongo dau, memoria eta aldarrikapen horretan, euskereak be euki dagian jagokon presentzia.



ZEBERIO

Aprilaren 12an ospatuko da Zeberioako Gazte Eguna

Erredakzioa

Zeberioako Gazte Elkarteak antolatuta, apirilaren bigarren zapatuan egingo da Zeberioako Gazte Egunaren hirugarren edizioa Zubialdeko plazan. Egitaraua eguerdian hasiko da gazte bazkariagaz eta jaiak ez dau bukaerarik izango gaua ondo sartuta egon arte. Izan be, gauetz kontzertuak eta DJa dagoz aurreikusita. Kontzertuetarako sarrerea doban da baina bazkarirako, 652 264 225 telefonora idatzi eta 10 euro ordaindu behar dira.

Gazte bazkaria arrastiko 15:00etarako dago programata eta ondo jan eta edan ostean, bazkalondokoa 19:00etaraino luzatuko da; izan be, orduan hasiko da arrastiko animazioa. OstiKda Elektroxarangea dago arrastiko poteoa girotuteko konbidautu eta honegaz hasiko dira jantzan gazte zeberioztar zein inguruetatik heldutakoak. Txarangea amaituta be, jantzan segiduteko orduak egongo dira aurretik, 22:30ean hasiko dira-ta kontzertuak. Oholtzaren gainean talde bi, Marte Lasarte eta Zilibito Records. Ostean DJ Zatzaz egongo da.

Marte Lasarte banda donostiarra, Skakeitan talde ezaguna desegin ostean sortu eben



2024an Pello eta Borjak, pop elektronikoa egiteko. Honeei Alex baterian eta Lore Nekane bajuzagaz batu ostean, pasau dan urteko udagoiengan argitarau eben lehenengo diskoa, *Ez da besterik*.

Zilibito Records barriz musika urbanoa egiten dauan Oiarzungo kolektiboa da. 2022an maketea atera eta Gaztearen Maketa Lehiaketea bereganatu eben. Pasau dan urtean bachata, pop-punka, hyperpopa, trapa eta beste genero batzuk buztartuten dituan *Deabruen doinuak* albuma argitaratu eben. Gauzag amaituteko, DJ Zatzaz larrabettuarrak hartuko dau musikearen agintea.

ARRATIA

Gaztetxeak Bertsotan ekimeneko finalerako sailkatu da Ekhi Zuluaga

Erredakzioa

Arratiako gaztetxerik egon ez arren zirkuituan, Euskal Herriko sei gaztetxe baino ez dira-ta, arratiar bik, Enara Gallastegi eta Ekhi Zuluagak, hartu dabe parte Gaztetxeak Bertsotan ekimenean. Ekimen honen helburua "Bertsolari gazteei plaza eskaintzea eta Gaztetxeen eta bertsoaren arteko harremana estutzea" da.

Zirkuitua, Itsasuko (Lapurdi) Goxoki Gaztetxeak, Mutrikuko (Gipuzkoa) Gaztetxeak, Hernaniko (Gipuzkoa) Kontrakantxa Gaztetxeak, Altsasuko (Nafarroa) Gaztetxeak, Gasteizko (Araba) Gaztetxeak eta Bilboko (Bizkaia) 7 Katu Gaztetxeak osotuten dabe. Lehenengo lau gaztetxeetan izan ziran kanporaketak eta Gasteiz eta Bilboko gaztetxeetan finalerdiak. Guztira, 24 bertsolarik

hartzean dabe parte, 12 bikote.

Arratiarrak Hernanin estreinau ziran. Enara Gallastegi Kattin Madariaga bikotekideagaz eta Ekhi Zuluaga Gorka Pagonabarragagaz. Zuluagak eta Pagonabarragak eta Gallastegi eta Madariagak, botoen bidez bigarrenek, lortu eben finalerdietarako pasea eta Bilboko Zazpi Katu Gaztetxean izan eben finalerdietako saioa martiaren 27an. Pagonabarraga eta Zuluaga maiatzaren 3an jokatuko dan finalerako sailkatu ziran.

Txapelketearen aurrekariak

Lehen aldia da Gaztetxeak Bertsotan ekimena abiatu dala, baina aurretik be egon zan helburu bera eukan Plazatik Gaztetera izeneko ekimena. 2002tik 2019ra jokatuko zan Deba arroaren inguruan, Mutrikuko bertso eskolarean ekimenez.

ZEANURI

Udebarri Jaiegaz emongo deustie ondo etorria zeanuriztarrek sasoi barriari

Erredakzioa

Aprilaren 5ean, zapatua, Udebarri Jaie ospatuko da Zeanurin, Udalak antolatuta. Egun osorako egitaraua dago programata, goizez hasita gauera arte. Holan, herrian giro ezin hobea egongo da lagunarteko joko, bazkari, musika eta "karaoke-poteo" artean. Ekintza guztiak izango dira irekiak eta doban, baina bazkarirako, izena emon behar da alde aurretik Txoko Sagarnan.

Jentea 12:00etan hasiko da batzean herriko plazan, izan be, orduan hasiko dira lagun arteko joko eta probak. Taldeak egin eta probaz proba, dibertiduteko tartea izango dira lagun arteko olinpiada txiki honeek. Honeek amaituta, frontoiko tabernara egingo dabe zeanuriztarrek, bertan egingo da-

ta bazkaria, 14:30ean. Bazkalondan, Edu Zardoyaren kontzertu akustikoagaz gozatuteko aukerea egongo da, 19:30ean "karaoke-poteoa" abiatu aurretik. Jaiagaz amaituteko, DJ Matxinadak ipiniko



dau musikea 22:00etatik aurrera. DJ bikote hau, Uxue Bernaola eta Amaia Sagasti zeberioztarrek osotuten dabe.

Edu Zardoya

Edu Zardoya (Tutera, 1999) konpositore eta gitarra-jole nafarra da eta gitarra eskuan, kontzertu akustikoak eskaintzen ditu. Ibilbide musikala institutu garaian hasi eban Pimiento Radical punk taldeagaz. Erriberako herrietatik ibili ziran eta bersinoak joteaz kantsauta, Zardoya talderako abestiak idazten hasi zan. Holan itxartu jakon abestiak sortzeako grina eta aldi berean hasi eban bakarkako ibilbidea, musika la-saiagoa egiteko. Holan, abesti bilduma oparoa argitarau dau bere estudio propioagaz, Zardoya Records, hain zuzen be.

ARRATIA

Herritarren parte-hartzea eskatzen dau Mankomunitateak eskualdeko mobikortasun diagnostikoa egiteko

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio, Mugikortasun eta Turismo Sailaren dirulaguntzea jaso dau eskualdeko mobikortasun jasangarriaren diagnostikoa egiteko.

"AUMen mobikortasun diagnostikoak herritarren mobikortasun beharrak identifiketako balioko dau, eta mankomunidadeari garraio eredu eraginkorra, iraunkorra eta mankomunidadearen berezko ezaugarri bereziei erantzungo deustena emoteko jarduera ildoak islatu behar ditu" dinoo prensa-oharrean.

"Sareen plangintzan eta mobikortasunaren azterketan aditua dan Ingartek enpresea dabil lanak egiten. Horretarako, mobikor-

tasunaren egoerearen azterketa sakona egiten dabiz, eta herritarren beharrak aztertzen. Azterketa horren helburua mankomunidadearen ikuspegi orokorra izatea da, honako honeetarako":

- Uri-mobikortasunaren egungo egoera identifiketea: garraioaren egungo baldintzak ebaluatzea, automobilaren erabilera, garraio publikoa, oinezkoen eta bizikleten mobikortasuna barne.

- Dagoan azpiegitura aztertea: erabilgarri dagozan azpiegiturak aztertea, esate baterako errepideak, aparkalekuak, garraio publikoko ibilbideak, bidegorriak eta oinezkoentzako espazioak.

- Erabiltzaileen portaera ebaluatzea: egoiliarren eta bisitarien mobikortasun ereduak ulertzea, joan-etorri handieneko puntuak



eta garraio-lehentasunak barne.

Inkestea

Diagnostikoak mankomunidadearen ezaugarrien eta preminen ikuspegi kuantitatiboa eta kualitatiboa emongo dau persona tipologia bakoitzerako eta udalerrietako biztanlegune bakoitzerako, eta garraio eskaintzea hobetzeko tresna izan daiteke, mobikortasun beharretara egokituz.

Mugikortasunaren Diagnostikoan herritarrek parte hartzeako prozesuaren barruan, herritarrei *online* inkesta bat egingo jakie, herritarrek zelan mobiduten diran eta dagozan garraio bide eta sareei buruz ze balorazio egiten daben jakiteko.

Herritarren informazioa jasoteko epea apirilaren 13an amaituko da. Inkestara sartzeko erabili daitezke goiko QR kodea edo esteka hau: <https://labur.eus/mugikortasungaldeketa>.



LEMOA

Saioa Elejabarrieta lemoaztarra Gernikako Batzar Nagusietako kide izentau dabe

Erredakzioa

Martiaren 19an, EH Bilduko Saioa Elejabarrieta Amorrortu lemoaztarak hartu eban batzarkide kargua Gernikako Batzar Nagusietan, Idoia Buruaga Barcena elorriotzarraren orde. EH Bilduko Arratiako batzarkide bakarra dala eta eskualdearen alde egingo dauala lan, azaldu deutso BEGITUri.

Saioa Elejabarrieta Lemoako alkate izan zan 12 urtez, hiru legegintzalditan, 2011tik 2023ra, hain zuzen be.



ARRATIA

Azoka jasangarria antolatu dabe Arratia Institutuko ikasleek

Arratia BHIko ikasleak

Apirilaren 10ean, goizeko 09:10etik 13:30ak arte, Arratia BHI-ko ikasleek azoka jasangarria egingo dabe Igorreko kiroldagiko frontoian.

Jasangarritasunagaz lotutako hainbat postutan, gai desbardinak landuko dira: km 0-ko produktuak eta Arratiako ekoizleak, berrerabilpena eta eskulanak, bertoko basoak eta ortuko landareak, bizikleta tailerra, ekoiztutako produktu naturalak, bigarren eskuko erro-

pea, mobikorren osagaien jatorriari buruzko sensibilizazioa eta erabilten ez doguzan mobikorren bilketea, birziklapena, liztor asiarak, ordenagailu konponketea...

Postu honeetaz gainera, berbal-di eta jolasak antolatu ditue egun horretarako. Gainera otzara bi zozketatuko ditue: Arratiako ekoizleek emondako produktuak osotutako bat eta Inazio Zubizarreta eskolako ikasleek egindako beste bat. Azokan jasotako dirua, irabazi asmorik bako alkarte bateri emongo jako.



ARRATIA/ZEBERIO

Gure eremuko ikastetxe publikoetan batez beste irakasleen %71,4k egin eban greba martiaren 25, 26 eta 27an

Bezperan sindikatuak eta Eusko Jaurlaritza negoziatzinoetan gaueko ordu txikiak arte egon arren, ez zan akordiorik lortu eta Steilas, LAB, ELA eta CCOO sindikatuek deitutako greba zikloari eutsi eutsien irakasleek.



Arratia Institutuan ipinitako pankartea.

Erredakzioa

Arratia eta Zeberioko irakasleen %71,4k egin eban greba batez beste, baina desbardintasun handiak egon ziran ikastetxearen arabera. Zeberion irakasle guztiak egin eben greba, %100 eta gitxieneko zerbitzuak baino ez ziran egon hiru egunetan. Zeanuriko eskolan be ja-

rraipen handia egon zan, irakasleen %86k egin eban greba eta. Arteako eskolan, hiru greba egunetako lehenengoan irakasleen %85ek, bigarren %93k eta hirugarrenean %85ek egin eban greba. Dimako eskolan, %71k lehenengo egunean; %64k bigarren eta %85ek hirugarrenean. Igorreko eskolan barriz; irakasleen %70 inguruk egin eban

greba hiru egunetan. Areatzako eskolan, egunaren arabera, %30 eta %32ren artean egon zan grebari jarraipena. Eta Arratia Institutuan, irakasleen %50ek egin eban greba lehenengo egunean; %53k bigarren eta %54k hirugarrenean.

Akordiorik lortzean ez bada, apirilaren 1 eta 2rako deituta dago beste greba ziklo bat.



HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Bilatu dego jakitza Bilatu dego proiektu

- Salmentan zein alokairuan
- Lurak (irakitzeko, landak, basoak...)
- Ekoiz/zak (jauak, baserriak, etxeak...)
- Garaioak
- Lokal komertzialak
- Pabiloiak...
- Solazioak

- Erekin berriak erakitzeko
- Inerformak
- AATibitate-proiektuak
- Borne diseinua
- CEE eta IIE-ak
- Hirigintza ahoikularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Urdulakur Agirre 25. Solana - Agirre
Bilbao - 48101 Bilbo - 48101 Bilbo
94 671 92 93 - 94 671 92 93
94 671 92 93 - 94 671 92 93
www.arratia.com

Kili-Kili
Amigo eta Puntuatza

Lahendakur Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 473 43 81

Olaetxe
OPTICA OPTICA

- Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gubitua
- Begi-ko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ASESORIA Gorbeialde

Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnua: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

SARETZEN: MUGIKORTASUNA

1,9 milioi ibilgailu dagoz Hego Euskal Herrian; gehienak, 14 urtetik gorako diesel turismoak

Autoz, trenez, bizikletaz, oinez edo autobusez... Zelan mobiduten garan ez da bakarrik garraiobide kontua: gure herrien, urien eta lurraldeen egituraren isla zuzena da. Mobikortasun ereduak ez dira neutroak; Historia kontetan dabe, eguneroko bizitza baldintzatzen dabe eta etorkizuna irudikatzen dabe. Horixe da Ander Gortazar arkitekto eta EHUko Hirigintza eta Lurralde-antolaketa Saileko irakaslearen eretxia: "Mobikortasuna eta urigintzea ia gauza bera dira".

HIRUKA/Erredakzioa

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) eta Nafarroan egunero milioika joan-etorri egiten dira, eta gure mobikortasun ohiturak hainbat faktorek baldintzatzen ditue, esate baterako uri antolaketak, garraio publikoaren erabilgarritasunak eta ibilgailu pribaduen nagusitasunak.

Gero eta gehiago mobiduten gara; Eusko Jaurlaritzaren azken Mugikortasun Inkestaren datuen arabera (2021), 6,5 milioi desplazamentu gertatzen dira astegun buruzurietan egunero-egunero EAEan; horreetatik %45 oinez, %33, autoz eta %15, garraio publikoan. Garraiorako aukerak uri diseinuaren arabera dira, eta horrek nabarmen baldintzatzen dau norantza goazen gure eguneroko joan-etorrietan.

Desplazamenturik ohikoena oinez egiten da, norberaren udalerrien barruan; oro har, eguneroko joan-etorrien %45 oinez egiten dira, eta zenbateko hori oindino handiagoa da andren (%51) eta 65 urtetik gorakoen artean (%72). Bestalde, auto pribadua da nagusi lan egiteko adinean dagozanen artean: 20 eta 64 urte bitartekoen ia erdiek aukeratzen dabe euren ibilgailua aukera nagusi lez eguneroko joan-etorriak egiteko.

Garraio publikoa, ostera, batez be (%23) gazte-gazteek erabiltzen dabe -7 eta 19 urte bitartekoek-, baina alde handiak dagoz lurraldetik lurraldera: Bizkaian egiten dira mota horretako bidaia gehien, 1.000 biztanleko eguneko 415 joan-etorrigaz; ondoren, Gipuzkoa (312), Araba (216) eta Nafarroa (172).

Lanera eta ikasketak egiteko joan-etorrien erdiak

Bidaien %29,9 lanera joateko dira, eta ikasketengaitiko bidaiak batu ezker (%12), joan-etorrien ia erdiak betebeharrak profesionalen edo prestakuntza betebeharrak lotuta dagoz. Gainerakoa erosketen eta gestioen (%28,8) eta

"Eusko Jaurlaritzaren atzen azterlanaren arabera, Bizkaian biltzean dira EAEko eguneroko joan-etorrien erdiak. Bilbo Handiak bakarrik 2,9 milioi desplazamentu inguru hartzean ditu astegun buruzurietan"



aisialdiko jardueren (%22) artean dago bananduta. Arlo horretan be eragina dauka generoak: gizonak gehiago desplazatzen dira lanagaitik (%32), eta andrak, barriz, batez be kudeaketak egiteko (%32,3). Eta, espero bezala, 7 eta 19 urte bitarteko gazteak batez be ikasketengaitik mobiduten dira.

Eusko Jaurlaritzaren atzen azterlanaren arabera, Bizkaian biltzean dira EAEko eguneroko joan-etorrien erdiak. Bilbo Handiak bakarrik 2,9 milioi desplazamentu inguru hartzean ditu astegun buruzurietan -hau da, lurralde horretako mobikortasunaren %80- eta metropoli horretako joan-etorrien %42ren epizentroa Bilbo da.

Uri-densitatea, biztanleriaren banaketea eta ekoizpen eta zerbitzu jardueren konzentrazioa funtsezko faktoreak dira bizilagunen mobimentuetan. Gipuzkoan, Donostialdeak (Donostia burudala) lurralde mobikortasunaren %53 biltzean dau, eta Araban, Gasteizen bakarrik egiten dira eskualdeko joan-etorrien %96 eta Araba osokoen %82. Azpimarratu beharra dago datuok 2021ekoak dirala, pandemia zala-ta mo-

bikortasuna mugatuta egoala, horregaitik, orokorrean, 2016ko Mugikortasun Inkestak jasotakoak baino bajuagoak dira (6,7 milioi desplazamentu eguneko). Ha-ta guzti be, joan-etorrien kopurua handituz doa urtez urte.

Hego Euskal Herrian, Bizkaia da mobikortasun handiena daukan lurraldea, batez be metropoliaren inguruan; izan be, EAEko desplazamentu guztien erdiak han egiten dira: lanegun bakar baten, 3,2 milioi joan-etorri zenbatuten dira, Bilbo Handiko metropoli eremuan pilatzen da horreen %80, eta Bilbok bakarrik hartzean dau lurralde osoko mugikortasunaren %33.

Bilboko metroak eta autobus sare zabalak Bizkaia garraio publikoaren erabilerearen buru izatea eragiten dabe: 415 bidaia 1.000 biztanleko, eguneko. Ha-ta guzti be, oinez ibiltea da aukerarik ohikoena (%50), eta ibilgailu pribaduak be pisu handia dauka (%33); holan, garraio publikoa joan-etorrien %15 da.

Autoa jaun eta jaube
Erakundeek mobikortasun

iraunkorragoa sustatzeko ahaleginak egin arren, auto pribadua da protagonista Hego Euskal Herriko eguneroko joan-etorrietan. Garraiobide hori erabiltzen da gehien hainbat lurralde eta biztanleria segmentutan, eta 2007tik autoen salmenta kopuruetan gorabeherak egon diran arren, 2023tik hona matrikulazioek etenbarik egin dabe gora, bai EAEan (+ %5,6), bai Nafarroan (+ %2,1) azken urtean.

EAEko eguneroko joan-etorrien %33-44 ibilgailu pribaduan egiten dira. Gipuzkoa da liderra (%44), Araba (%43) eta Bizkaia (%33) ditu atzetik. Nafarroan be, eskala berean banandutako daturik izan ez arren, autoa da garraiobiderik erabiliena.

Ibilgailu parkeari jagokonez, zaharra eta elektrifikazio maila bajukoa da. Guztira, 1,9 milioi ibilgailu inguru dira; gehienak, turismoak: parkearen %74,1 Bizkaian, %73,1 Araban, %70,1 Nafarroan eta %68,3 Gipuzkoan. Atzen horretan, motozikleta kopuru handiagoa nabarmentzen da (%14,3).

Autoen adinari jagokonez, EAEko batez bestekoa 14,5 urtekoa

da; eta Nafarroakoa, 15,2 urtekoa. Balio biak Espainiako Estaduko batez bestekoaren inguruan edo gainetik dagoz. Zahartze hori funtsezko oztupoa da deskarbonizazio helburuak lortzeako, parkea eredu iraunkoragoetara egokitzea eta barritzea zailtzen ditu-eta.

Ingurumen etiketei jagokienez, O etiketa (zero isuri) daukien ibilgailuek hondar-presentzia izaten jarraitzen dabe lau lurraldeetan. C etiketa (atzen EURO arauak beteten dituen barne-errekuntzako ibilgailuak) eta B etiketa (aurre-

ko araudiak) dituen modeloak dira nagusi, eta alde txikia dago lurraldeen artean. Ha-ta guzti be, ingurumen bereizgarriak bako ibilgailu kopuru handi batek presentzia nabarmena dauka gure inguruan, parke zaharkituaren ondorioz, batez be.

Parkea zahartu dan arren, matrikulazino barriek modu iraunkorago bateranzko bidea erakusten dabe. Izan be, 2024an, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako auto barrien %62 eta Nafarroako %59 "alternatiboak" dira, hau da, elektrikoak, hibridoak edo gasezkoak.

Holan, EAE liderra da hibrido ez-entxufagarri barrietan (%44,5) eta Nafarroa, elektriko hutsetan (%13,7), Estaduko batez bestekoaren bikotxa baino gehiago (%5,6).

Car-sharinga edo autoak partekatzea

Halanda be, mobikortasun jasagarriago baten bila, garraio publikoa hauspotzeaz gainera, Ander Gortazar adituak bestelako eredu bat ipini dau mahai-gaiean: *car-sharinga*, hau da, autoak partekatzea.

Dinoanez, kotxeak ez dira makina batere eraginkorrak, kotxe batek bere denporearen %95 aparkauta pasetan daualako, "eta efizientzia energetikoaren aldetik be, ez da oso jasagarria". Ha-ta guzti be, aitortzen dau autoak mobikortasuna asko erraztu daikela eta, ildo horretan, jaubetzan dogun objektu bat izatetik erabilten dogun objektu bat izateko idea egin dau: "Hau da, nik ez daukat kotxerik, baina kotxe bat erabili ahal dot behar dodanean, izan sare publikokoa edo pribadukoa". Holan, bere

ustez, autoak partekatuta, ibilgailuen kopurua %70 murriztu leiteke.

Kotxeak partekatzeko askotariko proiektuak ipini ditue martxan gure inguruan, esate baterako Uribe Kostan, tokiko mankomunitadeak sustatutako Ukanauto zerbitzuaren bitartez. Kasu horretan, urtean 30 euroko kuota ordainduta, alokairuzko kotxe bat erreserba daikie erabiltzaileek, behar dabenean erabili dagien.

Arratian bertan, Areatzan, Auzokar zerbitzuak autoa alokatzea aukerea emoten dau.

Autoa nagusi da baina garraio publikoaren erabilera eta eskaererea handitzen doaz Arratia, Ubide eta Zeberion

8.570 kotxe dagoz erregistrauta Arratia, Ubide eta Zeberion. Turismoei gehitzen badeutseguz motozikleta, ziklomotorrak furgonetak eta kamioiak, 13.055 ibilgailu dagoz erregistrauta. Arratia, Ubide eta Zeberioko populazioa 15.417 biztanlekoa izanda, batez beste, 0,87 ibilgailu dagoz biztanleko; 0,58 turismo.

Herriz herri begiratu ezker; 2023ko datuen arabera, biztanleko turismo gehien daukan herria Zeanuri da (0,69) eta ostean datoz Bedia (0,68) eta Ubide (0,68). Turismo gitxien biztanleko Areatzak daukaz (0,48), Arantzazu (0,52) eta Igorre (0,53) datoz gero. Erdikaldean dagoz Artea (0,57 turismo biztanleko), Dima (0,56), Lemoa (0,55) eta Zeberio (0,59).

Saretzen/Erredakzioa

Ibilgailu parke osoari begiratu ezker; kasu berezia da Bedia, biztanle baino gehiagoko ibilgailu parkea dauka-ta; 1,27 proporzioan. Kamioiek egiten dabe desbardintasun hori; izan be, Bedia 328 kamioi dagoz erregistrauta eta BEGITUREN eremuko kamioi parke handiena dauka. Bere atzean doaz Zeberio (0,95 ibilgailu biztanleko); Artea (0,93); Ubide (0,91); Lemoa (0,88); Dima (0,85); Zeanuri (0,83); Arantzazu (0,74); Igorre (0,73) eta Areatza (0,66).

Bizkaiko beste eskualdeetan legez, gizonek eta 20 eta 64 urte adin tartekoek erabilten dabe gehiago ibilgailu pribadua.

Arratiako garraio publikoa

Ha-ta guzti be Arratian asko erabilten da garraio publikoa; esandako moduan, gazte-gazteek eta zaharrek batez be, baina atzen urteotan beteago doaz autobusak eta leku guztietara heldu daiten zerbitzua hobetuteko aldarria hasi da eskualdean. Metxea biztu eben unibersidadeko ikasle batzuek, ikasturte hasieran, unibersidadera joateko garraio publikoa eskatu ebenean. Ez ziran horretara mugatu, eta Arratiako garraio publiko beharrek ikertzen hasi ziran.

BEGITUREN eremuan, garraio publikoa, autobusak, trena eta BideOn Arratian zerbitzuek oso-

tuten dabe. Autobus zerbitzuari jagokonean, Bizkaibus da ardatza. Bilbo-Zeanuri-Bilbo linea bi dagoz 3917 eta 3927, atzen hau autopistatik doana Bilbora, baina biak ditue geralekuak, Zeanuri eta Bedia arteko herri guztietan, bailara barruko zerbitzua eskainiz. 3925 linea, Bilbotik Ubidera doa, Igorren Dimarantza hartuta. Ubidera ordu biro dago autobusa, Dimaraino orduro. 3928

lineak, Zeberio, Artea, Igorre eta Ugaogaz lotzean dau, baina zerbitzu hau oso urria da, egunean hiruzpalau bider.

Gasteizera joateko La Union enpresako autobusak aste eguntan bitan baino ez dabe zerbitzua eskaintzen. Goizean, 09:45ak aldera pasetan da autobusa Igorretik Gasteizera eta 16:30ak aldera arrastian. Zapatuetan, goizean baino ez dago 09:15ak aldera

eta domeketan goizean 11:00ak aldera eta 19:00etan, arrastietan.

Trenak emoten deutso Arratiari itsasora urtekera; loturea beste eskualdeakaz eta Gipuzkoagaz konexinoa. Lemoak eta Bedia daukie tren geralekua. Lemoakoa da nagusia eta izan barik, intermodal moduan funtzionetan dau; izan be, haraino beste garraiobide bat erabilia, bertan hartzean dabe arratiarrek trena,

Bermeorantza, Donostiarantza edo Bilborantza.

BideON Arratian eskarrieko zerbitzuak, herrigunetik urrun dagozan auzoak herrigunetara edo eskualdetik kanpoko hainbat zerbitzuetara hurreratzen ditu 65 urtetik gorakoak. Hasieran beste zerbitzu batzuk eskaintzen saiatu bazan be, proiektu pilotua da, 65 urtetik gorakoan artean ditu ondoen baloretan daben erabiltzaileak.



SARETZEN: MUGIKORTASUNA

Hainbat ekimen dagoz martxan Arratiako garraio publikoa hobetuteko

Arratiako Udalen Mankomunidadeak galdetegi bat zabaldu dau mobikortasunaren aldetik herritarren beharrianak jakiteko, eta EAJ-PNVk eta EH Bilduk Lemoako tren geralekuan plataforma intermodal bat eta autobus linea barriak ipinteko, mozinoak sartu dabez. Izan be, Arratiako garraio publikoa hobetu behar dala argi daukie Arratiako udaletako partidu nagusi biek eta lanean dagoz.

Erredakzioa

Leioako unibersidadean ikasten dabizan ikasle batzuek biztu eben metxea eta mahaigaineratu eben arazoa. Izan be, Arratian ez dago unibersidadera joateko autobus zerbitzurik eta Leioako kanpusera helduteko batez beste hiru ordu behar dabez. Aurreko ikasturtean BideON Arratian garraio zerbitzuak Zeanuri eta Leioa lotuko ebazan linea agindu eutsen. Baina ikasturtea hasteko hiru egunetara jakin eben, ez zala halako zerbitzurik egongo. Alternatiba bakarra 07:15ean urten eta Lemoa edo Zornotzara joateko autobusa izan zan, buelta egiteko zerbitzu barik. Oin BideOn zerbitzuak, Lemoan edo Zornotzan itxen ditu ikasleak 07:00etan, handik autobus edo tren bat hartzeako.

Horren aurrean hiru proposamen daukiez ikasleek. Lehenengoa, Zeanuri eta Leioa batuko dauzan linea bat ezartea; beste alternatiba bat, Leioako EHUra doan Usansoloko zerbitzua Zeanurira arte luzatzea; eta hirugarrena, Zeanuritik Bilbora autopistatik doan autobusa unibersidadera arte joatea.

Hiru proposamen horreekaz, Bizkaiko Batzar Nagusietan egon ziran zezeilean eta oin udaletan mozinoak sartzean dabiz. "Unibersidadera goazen Arratiako ikasleok, ikastera joateko ez daukagu eskubidea dan garraio publiko zerbitzu duina. Egunerokotasunean unibersidadera joateko egin behar doguzan ibilbideek, geltokietako itxaronaldiek eta garraio aldatetek ez ditue gure beharrik asetzen. Segurtasun eta

egonkortasun falta handia sentiduten dogu unibersidadera joateko eta handik bueltetako orduan. Itxaroten egon behar garan denporeak gure bizitzetan garrantzitsuak eta ezinbestekoak diran gauzak egiteko denporea kentzean deuskue" di-noe mozinoan.

Aprilean hasieran Garraio Saileko Bizkaiko Foru Aldundiko diputadugaz batuko dira arazoaren eta eskaeren barri emoteko.

Honek guztiak Arratiako garraio publikoa hobetutearen premia begi-bistan ipini dau eta gaia agenda politikoan sartu da.

EAJ-PNVren mozinoa

EAJ-PNVk mozinoa aurkeztu dau Arratiako herrietan, Lemoan geraleku intermodal bat eregiteko eskatzeko arlo horretan eskumena daukien erakundeei. Mobikortasunaren aldetik eskualdearen kohesioa indartutea eta Bilbo eta beste eskualdeakazko loturak hobetutea litzateke intermodalaren helburua. Baita, eskualdeko garraio sistema ebaluetea be, Arratiako udaleriek interesgune nagusiakaz (UPV/EHU, ospitaleak, administrazioak, eta abar) konexioak hobetuteko. Izan be, mozinoak, "eskualdeko mobikortasuna hobetuteko eta, aldi berean, Bizkaiko beste eskualde batzuekaz konektetako" helburua dauka.

Intermodalak autoa gitxiago erabilten lagunduko leukela uste dabe jeltzaleek. "Lemoako tren geralekuan plataforma intermodal bat ipintea, beste garraibideakazko konexioa indartuteko eta ibilgailu pribadua aparkau ahal izateko, di-

suasino aparkalekua izango leuke. Azpiegitura horeri esker, hobeto integratu litzatekez trenbide eta autobus zerbitzuak".

Gainera, plataforma intermodal horregaz lotuko dituan autobus linea barri bat sortzea be eskatuten da mozinoan, trenbideko garraioa errazteko. "Konexino horeri esker, gainera, autobus zerbitzuaren maiztasunak handitu ahal izango litzatekez eskualde barruan, barne mobikortasuna hobetuz eta herritarrei joan-etorriak egiteko aukera gehiago eskainiz. Era berean, ikasleei, prestakuntza zentroetarako garraioa erraztuko leuskie, konexino azkarragoak eta eraginkorragoak bermatuz" azaldu dau Arratiako EAJ-PNVk prentsa-ohar batez.

Intermodalidade hau abian ipini bitartean EAJ-PNVk planteau dau "trenen maiztasunak 7 minutuko tartera arte zabaltzea, ikasleen prestakuntza zentroetarako joan-etorriak hobetuten lagunduko leukelako. Horrek zerbitzu hobea ziurtatuko leuke eta garraio pu-

blikoaren erabilera sustatuko leuke ibilbide osoan".

Diagnostikoa

Arratiako Udalen Mankomunitateak, Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio, Mugikortasun eta Turismo Sailaren laguntzeagaz, eskualdeko uri mobikortasun jasangarriaren diagnostikoa egin gura dau, herritarren beharrianak identifiketako eta horretarako online galdetegiak zabaldu dau <https://labur.eus/mugikortasungaldeteki> estekan. "Diagnostikoak Arratiaren ezaugarrien eta beharren ikuspegi kuantitatiboa eta kualitatiboa emongo dau, udalerrietako persona tipologia eta biztanle gune bakotxerako, eta mobikortasun beharretara egokituta garraio eskaintzea hobetzeko tresna izan daiteke" azaldu dabe AUMtik.

Areatzako EH Bilduren mozinoa

Areatzako EH Bilduk be mozinoa aurkeztu dau mobikortasunaren ingurukoa. "EH Bilduren partetik saiatu ginan EAJgaz batera mozino

bateratu bat aurrera ateraten, baina euren ezezoaren aurrean, gurea aurkeztea ebatzi genduan, ulertzen gendualako gurea osoagoa dala" azaldu deutso EH Bilduk begituri ohar baten.

EH Bilduren mozinoak gauza asko ditu komunean EAJren mozinoagaz: Lemoan intermodala egitea, erabiltzaileak plataforma intermodal horregaz lotuko dituan autobus linea barri bat sortzea autobus zerbitzuaren maiztasunak be 7,5 minuturaino zabalduetea eskatzen dabe.

Horreezaz gainera, EH Bilduren mozinoak be eskatzen dau "Usansolotik Leioako EHUko kanpusera doan autobus linea (2610) Arratiara luzatzea" hausnartutea, eta Arratiatik Gasteizera egiten diran desplazamentuen gaineko azterketea egitea eta "Gasteizko uriburuagaz lotzean gaituan garraio zerbitzuak hobetutea, ordutegiak eta maiztasunak egokituz egindako azterketaren arabera".



Arratiako Udalen mugikortasun

Gure ikastetxeak

Luskalduna kalidadezkoa herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Bidaiarien esperientziak

Personen mobikortasunean kotxea nagusi izan arren, garraio publikoak, eta oinez eta bizikletan ibiltea errazten dauan orografiak, kotxe barik ibilteko eskualde egokia egiten dabe Arratia, (baina ez Ubide ezta Zeberio be).

Garraio publikoari jagokonean, autobusa, trena eta BideON Arratia eskarrieko garraio zerbitzua dagoz eskualdean.

Autobus, tren, BideON eta bizikleta erabiltzaile banagaz egon da BEGITU euren esperientzien barri jakiteko. Danek galdera honeei erantzun deusez:

1-. Noiztik eta zertarako erabilten dozu garraiobide hori? 2-. Zergaitik? Ze bentaja ditu? 3-. Zure ustez Arratian, horretarako zerbitzu/azpiegitura ona daukagu? 4-. Hobetu daiteke?

BideON Arratia. Garbiñe Uriarte, 65 urte, Artaun (Dima). Jubiladua

Arratiako Udalen Mankomunitateko BideON Arratia eskarrieko zerbitzua, herrigunetatik kanpo bizi diran 65 urtetik gorako eta ikasleentzako zerbitzua da, garraio publikoa ez dan lekuetan zerbitzua eskaintzeko. 2024an ipini zan martxan proiektu pilotu moduan eta batez be 65 urtetik gorakoek erabilten dabe auzuneetatik herrigunetara joateko eta bueltea egiteko. Edadekoek kalifikazio bikaina emoten deusie. Euren beharrak ez dituala beteten keju dira unibersidadeko ikasleak.

Taxiek emoten dabe zerbitzua, autobus bidaia baten prezioan.

"Zerbitzu hau behar-beharrezkoa da"

1-. Hasi nintzan erabilten igazko maiatzean. Nik erabilten dot batez be Igorreko kiroldegiko ugerlekura joateko. Joan eta etorteko. Arteara be joaten naz ikastaro batera eta horreexetarako erabilten dot. Inoz be erabili izan dot kotxea garajejan itxitakoan, etxera bueltetako.

2-. Niri oso eroso egiten jata, ez dodalako gidatu behar. Beste bentaja bat da etxeko beste batek kotxea behar izan ezker, kotxea itxi egiten dozula beste norbaitentzako, ze etxean jente gehiago bizi gara. Gainera, bidaian egon ahal zara irakurten, mobikorrari begira...

3-. Pentsetan dot zerbitzu hau Arratiarako oso egokia dala, batez be baserrietan bizi garan jentearentzat. Medikuenara joateko, ule-apaindegira... Jente askok ez dauka gidabaimenik eta ibili behar da taxiagaz edo familiaren laguntzeagaz. Zahar-etxeetara bisitak egiteko erabilten dabe askok. Badago andra bat eguneroko eguerdian joaten dana bisitan gizonari. Eta horretarako perfektoa da, ze taxiak hartzean zaitu etxean eta ixten zaitu erresidentzian eta alderantziz. Nire ustez zerbitzu hau behar-beharrezkoa da.

4-. Gero eta jente gehiago dago apuntetan eta igual ez da nahikoa: inoz esan deuste ez daukiela kotxe liberrik ordu horretan. Erabilerea handitzea gauza ona da baina... Batzuetan bidaia konpartidu eta beste persona bategaz joan ahal zara. Bidaia aprobe-txea be gauza ona da.

Bizikletza. Ixone Aroma, 43 urte, Artea. Irakaslea

Arratian bidegorri gitxi eta sarerik egon ez arren, Igorretik Zeanurira eta Dimara, eta alderantziz, erraza da bizikletan egiteko, aldapa handirik ez eta bide-bazter zabalak dagozako. Ubide eta Zeberion, distantziak eta aldapak ez dabe egiten eroso bizikletearen erabilerea garraio moduan, eta Lemoa eta Bediara trafiko handiak eta bide-bazterrik ezak zaildu egiten dabe bizikletearen erabilerea.

"Lanera bizikletaz joatea lujo bat da"

1-. Bizikletza umetatik erabilten dot, beti gustau izan jata. Garraio moduan edo konzientzia horregaz, unibersidadean hasi nintzala esango neuke. Gasteizen bizi nintzan eta Gasteizek bidegorri sare nahiko ona dauka eta erraza da urian bizikletaz mobidutea, eta unibersidadera joateko bizikletza erabilten neban.

Gero, ni durangarra naz, eta Durango be erabili izan dot batera eta bestera mobiduteko baina herri barruan. Gasteizen antzera. Durango be herri nahiko zabala da-ta.

Eta Igorren hasi nintzanean lanean, esan neban ba distantzia polita da lanera bizikletaz joateko ze nire etxetik Institutura lau kilometro pasatxo dagoz. Bigarren ikasturtea da bizikletaz noala.

Bide batez, erosketak be inoz egiten dodaz. Alforjak daukadaz laneko gauzak eroateko eta erosketa txikiren bat bada eta Igorren banago, aprobe-tzetan dot. Baina erosketa potoloak egiten beren-beregi ez noa bizikletaz.

2-. Lanera bizikletaz joatea lujo bat da. Arpegian, irribarrean, igartzen jatala esaten deuste lankideek.

3-. Arratian orografiak lagunduten dau. Hemendik (Artea) eta Zeanurira eta Dimara, orografiak behintzat lagunduten dau. Baina bidegorria be nik eskertuko neuke. Ni neu Industrialdetik noa, ez dot zapaltzen errepide nazionala. Baina igual egon beharko litzateke... bizikletaz ibilteko... laguntza batzuk edo jentea animau daiten. Askok esaten deuste "nik kotxeakaz ez dot ibili gura" edo "ez naz ausartzen". Badakit bidegorri proiektu bat bada-goala eta egongo balitz uste dot jente gehiago animauko litzatekela.

4-. Sarritan, bidegorria egiten da baina ez daukazu bizikletza non itxi edo non kandatu. Hori beste eskari bat da. Bidegorria da lehenengo eskaerea. Sarea, ze batzuetan amaitzen da bidegorria eta oin? Eta bizikletak itxeko lekuak?

Autobusa. Iñaki Gutierrez, 60 urte, Bilbo. Irakaslea

Autobusak bailara barruko zerbitzua eskaintzeaz gainera, Bilbogaz lotura zuzena eskaintzen dau. Hori dala-ta ez bakarrik arratiarrek, Bilbon bizi eta Arratian lan egiten dabenek be erabilten dabe.

Bizkaibuseko 3917, 3927 eta 3925 lineetako erabiltzaileek pozik dagoz baina beste linea eta autobus zerbitzuak eskastzat jotzen dabez autobusez ibiltzen diranek.

"Kotxez ibiltea baino askoz merkeago da"

1-. Autobusa erabilten dot Arteara lanera etorteko, gaztelaniazko eskolak emoten dodaz Kultur Etxean. Astean bitan be Galdakaon emoten dodaz klaseak eta linea hau berau hartzean dot. Galdakaoko Helduentzako Zentroa da, zirkulu bat da.

2-. Oso eroso da. Ni Bilbon Rekalden bizi naz eta hartzean dot autobusa La Casillan, etxetik bost minutura eta Artearaino ekarten nau. Sarritasuna be ona da, ordu erdiro daukat autobusa eta kotxean etortea baino askoz merkeagoa da.

3-. Bilbotik Arratiara eta alderantzizko autobus zerbitzua ondo dago. Aste barruan, ordu erdiro dago autobusa. Trafikoa dala-ta batzuetan ez da orduan heltzean baina, bueno, hori trafikoaren kontua da.

4-. Ez dakit zertan hobetu daiteken, ni oso pozik nago.

Trena. Beatriz Azpiri, 63 urte, Arantzazu. Kazetaria

Trenak eskaintzen deustoa Arratiari beste eskualdakazko loturea. Erabiltzaileek oso ondo baloretan dabe bidaiak ez badira luzeak; izan be, oso fidagarria da, puntuala eta merkea eta sarritasunaren aldetik be ordu erdira dagoz trenak Elgoibarreraino eta Bermeoraino. Baita Bilbora be. Donostiara, orduro. Baina ondo balorau arren, gitxi erabilten da, orokorrean, tren geralekura ailegetako beste garraiobide bat erabili behar da-ta.

Euskotrenek eskaintzen dau zerbitzua. E1 linea, Matiko (Bilbo)-Amara (Donostia)-Bilbo; Matiko (Bilbo)-Elgoibar, eta E4 Matiko (Bilbo)-Bermeo pasetan dira Bedia eta Lemoatik.

"Orduan helduko dala badakizu"

1-. Familia daukat Eibarren eta, Arratiara biziten etorri nintzanetik erabilten dot trena Eibarrera joateko. Lemoako tren geralekuan hartzean dot. Udan hondartzara joateko be, Mundakara, erabilten dot.

2-. Bentaja asko ditu: kotxeak baino askoz gitxiago kutsatzen dau; aparketako arazorik ez dago; askoz merkeagoa da...

3-. Euskotrenek eskaintzen dauan zerbitzua ona da: fidagarria eta puntuala eta sarritasuna be ondo dago. Atxakiaren bat ipintearren, urrunera danean bidaiak, Gipuzkoara, esate baterako, autobusean baino luzeagoak dirala.

Baina Arratiako azpiegitura ez da ona zerbitzua behar bezala erabilteko eta konexinoak ez dira onak. Autobusa eta trena erabili behar diranean, askotan, batetik bestera, ordu erdi itxaron behar izaten da eta horrek asko luzatuten dau bidaia.

4-. Hobetuteko, geralekura doan sarritasun handiko autobus linea bat ipini daiteke; bidegorriak Igorretik eta Bediatik... Eta ordutegiak egokitu autobus eta tren konexinoak egin ahal izateko.





**IPINI
ZURE
IRAGARKIA
BEGITUN!**

Informazioa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus

LABORAL  -k eta **AMA**  -k aurkezten dute:

BABESLEAK

Partekatutako balioetan oinarritutako harremana.

LABORAL Kutxan eta **AMA Tolosan**
bat gatoz gure lurra eta nortasuna
babesteko konpromisoarekin.

Eta, espirtu horrek bultzatuta,
oso zozketa berezia egingo dugu:

AMA Tolosako **4 esperientzia**
gastronomiko eta **2 laguntzako**
gau bateko egonaldia nekazaritza-
turismoko establezimendu batean*.



HARTU PARTE HEMEN:
[laboralkutxa.com/eu/
babesleak-ama-tolosa](http://laboralkutxa.com/eu/babesleak-ama-tolosa)

*LABORAL Kutxaren bezero diren 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiek hartuko dute parte zozketan, baldin eta 2025eko martxoaren 16tik apirilaren 20ra bitartean mezu elektronikoko galderari erantzuten badiete. Zozketa, AMA Tolosa jateko esperientzia gastronomikoen 4 sorta, 2 laguntzat bakoitza, eta gosaria bame duen 2 laguntzako ostatu-gau bat, KORTETA AGROTURISMOA establezimenduan, 2025eko maiatzaren 10erako, AMAko lantegia maiatzaren 10eko arratsaldean izango da, 18:30 aldera, eta, ondoren, afaria zerbitzatuko da. Joan-etorriak ez dira sartzen. Zozketaren data: 2025eko apirilaren 22a. Ikusi zozketaren oinarriak laboralkutxa.eus webgunean.


LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat



- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**



94 631 72 57



ekin@ekinsl.eus



Igorre (Bizkaia)

MENDIA

Oier Zubeldiak eta Oihana Kortazarrek irabazi eben Kolazino mendi lasterketa nagusia eta Onditz Iturbek bigarren egin eban

Erredakzioa

Bediako Kolazino Mendi Eguneko 24 kilometroko lasterketa Oier Zubeldiak eta Oihana Kortazarrek irabazi eben. 16 kilometrokoa barriz, Ekain Salazarrek eta Alluitz de Bilbao. Onditz Iturbe igorretarra podiumera igon zan, bigarren eginda.

Hotza, euria eta mendirik altuetan, edurra be egin eban martiaren 15ean, lasterketa egunean eta hori dala-ta lupetzez beteta egon zan ibilbidea labankor egina. Baina hori ez zan izan oztopo Igorrekoarentzat. "Egia esan, eguraldi aldetik ezin kejar, iragarria egoanareko txarto be ez, baina astean zehar botatakoagaz, espero moduan, lupetza topera" azaldu deutso BEGITUIturbek. Eta gogorra egin jakon. "Jakin genduan luze geldituko jakula, oindino kilometro eta desnibel

gitxi daukadalako mendian sartuta. Baina egoanagaz burrukatutea helburu ipinita, zapatillak estu lotu eta aurrera".

Podiumak

24 kilometroko lasterketako gizonen podiuma, Oier Zubeldiak (02:14:22), Paul Ormaetxeak (02:15:31) eta Jokin Etxabek (02:17:30) osotu eben; andrazkoena, Oihana Kortazarrek (02:40:27), Onditz Iturbek (02:44:02) eta Oihana Zubillagak (02:47:19).

16 kilometrokoari jagokonean, Ekain Salazar (01:32:41) izan zan bizkorrena eta atzetik heldu ziran Hodei Lujanbio (01:33:03) eta Ibai Pie de Hierro (01:34:03). Andrazkoen artean, Alluitz de Bilbao (02:00:18) izan zan lehenengoa, Maddi Elizasu (02:04:30) bigarrena eta Jone Oar-Arteta hirugarrena (02:11:56).



Onditz Iturbe, Oihana Kortazar eta Oihana Zubillaga. Argazkia: Festak.



FUTBOLA

Andrazkoen eta gizonen Arratia Bk irabazi egin dabe atzen jardunaldian

Andrazkoen Arratia B taldeak 4-1 irabazi eban etxean Derio A taldearen kontra eta gizonen Arratia Bk 1-3 etxetik kanpo Loiu A taldearen kontra.

Gizonen Arratia Ak bana bardindu eban etxean Mungia Aren kontra eta Lemoako Harrobik husna bardindu eban etxetik kanpo Artibai taldearen kontra. Andrazkoen Arratia Ak ostera 0-1 galdu eban etxean Añorga taldearen kontra.

Erredakzioa

Gizonen Arratia A taldeak martiaren 29an jokatu eban Mungia A taldearen kontra Urbietan eta bana bardindu eban. Arratiarrak aurreratu ziran 52. minutuan Alex Etxebarria igorretarraren gol bateri esker baina 12 minuturen faltan kanpokoan gola heldu zan. 27 jardunaldiren ostean 41 puntu ditu Arratia Ak eta zortzigarren postuan dago. Datorren partidua etxean jokatu dau Otxarkoaga A taldearen kontra apirilaren 5ean, arrastiko 18:00etan.

Gizonen Arratia B taldeak hilaren 29an jokatu eban etxetik kanpo Loiu A taldearen kontra eta 1-3 irabazi eban. Arratiarrak aurreratu ziran Aimar Iturrondobeitia dimoztarrak 30. minutuan sartutako golagaz. Bigarren zatiko hasieran etxekoek partidua bardintzea lortu eben baina Iraitz Durana dimoztarrak eta barriro Iturrondobeitiak sartutako golek 1-3koa ipini eben markagailuan. 27 jardunaldiren ostean 35 puntu ditu Arratia Bk eta hamaikagarren postuan dago. Datorren partidua etxean jokatu dau Artibai taldearen kontra apirilaren 5ean, arrastiko 15:30ean.

Andrazkoen Arratia A taldeak martiaren 29an jokatu eban etxean Añorga taldearen kontra eta 0-1 galdu eban. Arratiarren atzen partiduetako bolada ona amaitu zan zapatuan, egundoko aukerea zan lehen hiru postuetan kokatzeko baina huts egin eben; gainera, aurreko partiduan bigarren dagoan Athletic C taldea 1-4 irabaztetik etozan. 26 jardunaldiren ostean eta ligea amaituteko lau partiduren faltan Arratia Ak 50 puntu ditu eta laugarren postuan dago, postu honek balizko igoera promozinoa jokatzeke balioko leuke. Datorren partidua apirilaren 13an, eguerdiko 12:30ean Santanderren jokatu dau Arratia Ak atzen postuan dagoan Racing B taldearen kontra.

Aurreko astegienerako Athletic C taldearen kontrako partiduen ostean Irati Artaraz bediazarragaz egoteko aukerea euki eban BEGITUIturbek eta hauxe adierazo eban: "Athleticen kontrako partidua oso inportantea zan goiko postuetan jarraituteko eta igoera promozinoagaitik



Athletic C eta Arratia Aren arteko partidua Lezaman.

burrukatuteko eta horregaitik aste osoan euki dogu buruan sartuta irabazi behar gendula, jakinda Athletic talde gogorra dala eta partidua Lezaman jokatu genduala. Partiduari jagokonez seigarren minutuan espero ez genduan kontraeraso arin baten ostean euren gola etorri zan, halanda be guk geure lanagaz segidu eta hiru minutu beranduago nire gola etorri zan. Bardinketea lortu ostean gu hobeto ibili ginan eta Itsaso Kumiren gola heldu zan. Bigarren zatian euren jokari bat txartel gorriagaz kanporatu eben eta partidua gure alde ipini bazan be eurak izan ziran partiduen jaube eta gu atzean sartuta egon ginan. Holan gure aukera handienak kontraerasoan heldu ziran eta holan sartu neban nik hirugarrena eta Amaia Altzagaz laugarrena. Itzelezko poztasunagaz Igorrera hiru puntu gehiagoz bueltatu ginan.

Denporaldia laburbilduz aurten talde moduan gorabeherak euki doguz eta lehenengo bueltan oso ondo ibili ginan eta laugarren postuan amaitu genduan, baina behin bigarrena hasi zanean lesino garrantzitsu batzuren ostean nahiko txarto ibili ginan joko aldetik eta emaitza aldetik euki genduzan lau partidua nahiko txarto joan jakuzanak, baina behin hori pasata atzen lau partidua irabazi doguz eta oin topera gabiz eta ligako atzen bost partidua gogoak hartuko doguz igoereagaitik burrukatuteko".

Andrazkoen Arratia B taldeak domeka eguerdian jokatu eban Derio A taldearen kontra eta 4-1 irabazi eban.

Lehen gola atsedenaldirako gitxi falta zala Iratxe Bernaola artezarrak sartu eban. Bigarren zatiko ordu laurdena beteterakoan arratiarrak gola sartu eben bere atean eta banakoak igon eban markagailura, baina hurrengo minutuan Uxue Aurtenekek bi eta batekoa sartu eban. Hirugarren gola Alaitz Zelestino dimoztarrak sartu eban, 26 golegaz kategoriako pitxitxia danak, eta atzen gola Bernaolak egin eban 90. minutuan. 22 jardunaldiren ostean 37 puntu ditu Arratia Bk eta bosgarren postuan dago. Datorren jardunaldia apirilaren 12-13ko astegienerako jokatu dau Arratia Bk hileko lehen astegienerako deskantsua daukalako.

Lemoako Harrobi

Martiaren 28an, barikua, jokatu eban Lemoako Harrobik Markinan Artibai taldearen kontra eta husna bardindu eban. 27 jardunaldiren ostean 30 puntu ditu Lemoako Harrobik eta hamahirugarren postuan dago sailkapenean. Datorren partidua Arlonagusian jokatu dau Berriatuko taldearen kontra, hilaren 6an, goizeko 11:30ean.

Lemoa Harrobi Futbol Klubak datorren denporaldiari begira klubera batu gura diran ume guztiei izena-emoteko aukerea zabaltu deutse. Aprilean hasiko da kluba izena emoten dabenakaz probak egiten. Izena emoteko edo informazioa jasoteko telefono honetara jo behar da: 690 190 738. 2018, 2019 eta 2020an jaiotakoek emon daikie izena eta taldeak mistoak izango dira.

BOLA JOKOA

Tiraldi biren ostean Lemoa dago Arratiako Komarkala Bola Txapelketako lidertzan

Erredakzioa

Martiazen 8an hasi zan Lemoan txapelketea eta 22an bigarren jardunaldia jokatu eben Arratiako sei taldeek Artaunen eta Lemoak eroan eban garaipena 661 puntu lortuta.

Bigarren Oba sailkatu zan 638 puntugaz, hirugarren Zeanurik egin eban 629gaz, laugarren Elorriagak 628gaz, bosgarren San Kristobalek 620gaz eta seigarren Bargondiak 572gaz.

Tiraldi biren ostean holan dago sailkapen orokorra: 1-. Lemoa 1.186 puntu; 2-. Zeanuri 1.168 puntu; 3-. Elorriaga 1.143 puntu; 4-. Oba 1.124 puntu; 5-. San Kristobal 1.060 puntu; 6-. Bargondia 1.003 puntu.

Datorren tiraldia apirilaren 5ean izango da Dimako Bargondia auzoan, arrastiko 16:30ean eta hilaren 12an Arratiako Banakako Txapelketea jokatuko da Lemoan 16:30etik aurrera.



MENDIA

Gorbeia Suzien 21K mendi lasterketarako izen-emotea zabalik

Erredakzioa

Apirilaren 1ean zabaldu da Gorbeia Suzieneko 21 kilometroko lasterketarako izen-emotea. Lasterketea urri lehenengoaren 27an izango da 11:00etan, Zeanurin.

Izen-emotea www.gorbeia-suzien.eus webgunean dagoan loturatik, Rockthesport plataforman dagoan formularioa beteta

egin behar da, 200 dorsalak amaitu baino lehen. Dorsaldunek 50 euro ordaindu beharko dabez. Kanpoan gelditzen diranakaz itxaron zerrenda bat osotuko da.

Gorbeia Suzien 21K lasterketan 4 ordu eta 30 minutu baino lehen heldu beharko da helmugara. Denpora hori gainditu ezkerro, sailkapenetik kanpo geratuko da korrikalaria.



MENDIA

Ander Astondoa, Jabi Txikon eta Pako Sanchezek Andeetako Condor sumendiaren tontor bat igon dabe

Erredakzioa

Mendi honek 6.037 metroko altuera dauka eta Condor sumendiaren bigarren mailako tontor bat da, nahiko ezezaguna. Izan be, igoera hori albiste izan da, beste espedizinoen errasturik ez egoalako eta Astondoa igorretarrak eta Txikon lemoztarrak eta Sanchezek Desnivel aldizkariari esandakoaren arabera, "Andeetako 6.000 metro baino gehiagoko zapaldu bako atzen tontorra izan eitekean".

Condor sumendiaren tontor nagusia, 6.373 metrokoa, "Henry Barret-ek eta Walter Sinaik igon eben lehenengo aldiz 1996ko urri bigarrenaren 27an eta orduetik hiruzpalau igoera besterik ez ditu. Guk tontor nagusitik nahiko urrun dagoan beste tontor bateri erreparau geuntsan. Aldez aurretik genkien, tontor horretara hel-

duten lehenengoak izateko aukera asko geunkazala" dino Pako Sanchez "Crestas"ek Desnivele. Heldu ziranean ez eben harrizko lekukotasunik topau eta "cairn edo harrizko lekukotasunak" egin ebezan mendi haretako kota guztietan.

Tontorarentzat Don Diego EHC izena proponidu dabe. "Don Diego, Jabi Txikonek Fiambalan ustiatzen dauan mahastiari dedikauta eta EHC Euskal Herria eta Catalunya adierazoteko" eskalatzailer bi Euskal Herrikoak eta bestea Catalunyoak ziran-ta.



ERRUGBIA

Jardunaldi biren faltan, atzen postuan segiduten dabe Arratiko Zekorrek

Erredakzioa

Atzen hamabostaldian 2. mailako Euskal Liga Seniorreko partidu bi jokatu ditu Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrek taldeak baina ez dau punturik lortu. Holan, sailkapenean bederatzigarren postuan dagoz arratiarrak hamasei puntugaz. Halanda be, jardunaldi biren faltan badaukie postu pare bat aurrera egiteko aukerea. Izan be, datorren partidua Zaisa Txingudi taldearen kontra jokatuko dabe, hilaren 5ean; honeek zortzigarren dira hamazazpi puntugaz. Ligako atzen partidua barriz, Gesalaga

Okelan Gipuzkoa Sortzen-en kontra jokatuko dabe, seigarrenak 21 puntugaz.

Martiazen 15ean, Gamarran jokatu eben ligako jardunaldia zekorrek, Gaztedi taldearen kontra. Partidua bide onetik eta arratiarrak partidu osoan irabazten joan ziran

arren, gasteiztarrek atzen momentuan emon eutsien bueltea markagailuari eta 24-21 amaitu zan jokoa. Martiazen 29an barriz, zekorrek Universitario Bilbao Rugby taldea hartu eben San Txismen eta bilbotarrak izan ziran nagusi, 5-55 amaitu zan eta partidua.



ZINEKLUBA

Iran, Irak, Frantzia eta Austriaren arteko *Half Moon* koprodukzioa dakar Igorreko Zineklubak

Erredakzioa

Bahman Ghodabi zuzendaria- ren 2006ko pelikulea egongo da ikusgai Igorreko Lasarte Aretoan, apirilaren 9an, 20:00etan. Film honek 2006ko Donostiako Zinemaldian, pelikula onenari Urrezko Maskorra jaso eban.

Pelikuleak, Irango Kurdistaneko musikari batzuek, Irakeko Kurdistanean emon behar dabela kontzertua eta kontzertua zein prestaketen istorioa kontetan dau. "Mamori, musikari nagusi eta entzutetsuari, Irakeko Kurdistanen kontzertu bat aurrera erote-ko baimena emon deusie. Kako lagunak eskola autobus bat gidatuko dau, eta musikariak jasoko ditu Irango Kurdistan osoan zehar. Mamok 35 urte itxaron ditu Irakeko Kurdistanen jo ahal izateko, eta entzungor egiten deutso semearen bihozkaleari: hurrengo ilargi betea baino lehen zeozer bil-

durgarria gertatuko dala. Bidean, eurek joateko konbenzidu behar dau Hesho abeslaria, erbesteratutako beste 1.334 abeslarigaz batera mendiko aterpe baten bizi dana. Irango andrek jentearrean kantau ezin dabenez, Hesho ezkutuan joan beharko da autobusean" sinopsiaren arabera.



LIBURUA

Ahoztar Zelaieta Zeanurin izango da Osakidetzak sektore pribaduagaz dituan hitzarmenen gainean berbaz

Erredakzioa

Ahoztar Zelaieta ikerketa-kazetaria eta kriminologoa Zeanuriko Kultur Etxean egongo da apirilaren 3an, 19:00etan, *Diagnóstico Tolosaldea. La privatización de la sanidad en el oasis vasco* liburua aurkezten eta horren gainean berbaldea egiten.

Ikerketa honetan, Ahoztar Zelaietak, Osakidetzaren eta Tolosaldeko Asuncion klinikearen arteko hitzarmenaren jatorria eta akordio horren ondoren sortutako negozioa deskribiduten dauz. Baita ate birakariak, ustelkeriaz zipriztindutako klientelismoa, sindikatuen salaketak, oposizio politikoa eta mobilizazio soziala be.

Zelaieta igaz be egon zan Zeanurin, *La Ertzaintza que viene. Tecnología de hipervigilancia y capitalismo de consultoría* liburua aurkezten.

Sinopsia

"Euskal oasiaren koroaren harribitxia, Osakidetzak, gainbehera doa eta osasun publikorako eskubidea

mehatxatzen dauan faktoreetako bat, osasun zerbitzuak sektore pribaduagaz egiten dituan hitzarmenak dira. Gipuzkoa da hitzarmen gehien dituan lurraldea, eta esparru horretan Tolosaldeko Asuncion klinikea nabarmentzen da; Osasun Sailak 71 milioi euro injektatu deusaz zentro pribadu horri 2019tik 2022ra bitartean. Tolosaldeko eskualde osorako erreferentziako osasun zentroa da, 65.000 biztanletik gorakoa, eta han gertatzen dana osasun publikoaren inguruko krisiaren sintomea da".



IPIUIN MUSIKALA

Marrazki bizidunetako abestiakaz egindako ipuin musikala eskainiko dau Arratiako Musika Eskoleak Igorren

Aprilaren 5ean, *Cartoons* izeneko ipuin musikala eskainiko dabe Arratiako Musika Eskolako ikasleek Igorreko Lasarte Aretoan eta bertan marrazki bizidunetako abesti "mitikoak" entzun ahal izango dira. Saio bi egongo dira; lehenengoa 17:00etan, eta bigarrena, 19:00etan.

Erredakzioa

Lehenengo saioan Igorre, Lemoa eta Otxandioko ikasleak egongo dira eta bigarrean, Areatza, Artea, Dima, Zeanuri eta Zeberioiko ikasleak.

Guztira, ia 150 ikaslek hartuko dabe parte, 75 inguru saio bakotxean. Gainera, koruko 18 ikaslek lagunduko dabe euren ahotsakaz. Orkestan, 20 bat irakaslek jotzen dabe. "Eta jotzen ez dabenek antolakuntzan lagunduten dabe, danontzako lana dago hainbeste ikaslegaz" azaldu deusie BEGITURI Musika Eskolatik.

Sendotuz doan kontzertua
Arratiako Musika Eskolako ikasleak publiko aurrean ipuin mu-

sikala egiten hasi ziranetik eboluzioa egon dala dinoe musika eskolakoek. "Hasikeran, musika eta mobimentuko ikasleen urteroko emonaldia izan zan. 4 eta 7 urte bitarteko ikasleakaz musika klaseetan egiten dan lana



KONTZERTUA

Zelanda taldearen kontzertua egongo da Lemoako Kotxepin Kultur Etxean

Erredakzioa

Aprilaren 4an, 20:00etan, Zelanda taldeak kontzertua eskainiko dau Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.

Hesian, Sakanako taldea, desegin ondoren, Fran Urias abeslari eta gitarristek 2021ean sortutako taldea da Zelanda, pop-rock estiloko musikea egiten dauana.

Fran Uriasek eta Ane eta Iñaki Bastida neba-arrebek sortu eben Zelanda musika proiektua 2021ean. 2023an, aldaketak egon ziran taldean. Zezeilean Ane Bastidak taldea itxi behar

izan eban eta Xabi Seko altsuarrak ordezkatu eban bajuan. Maria Ereña ahotsean, Lander

Anton tekladuan eta ahotsean, eta Mikel Arrieta gitarran be batu ziran taldera.



erakusteko modua zan: kantua, jantzea eta instrumentu praktika perkusino txikiagaz. Ondoren, irakasleen orkestaren parte-hartzea gehitu zan, ikasle honeei eta publiko orokorrari musika eskolan emoten diran instrumentu guztien barri jakiteko aukerea eskaintzen deusena. Horregaz batera, abesbatzaren eta kantu ikasleen parte-hartzea gehitu zan, Lasarte Aretoko emonaldia izanik, holango kontzertu bat egiteko beharrezko baliabide teknikoak daukaguz eta. Holan sendotuz joan da eskala handiko kontzertu lez, eta musika eskolako gero eta talde gehiagok hartzean dabe parte".

Eskala honetako kontzertu bat prestatzeak dedikazio handia eskatzen dau. "Ikasturte hasikera bakotxean ilusinoz heltzean deutsegu gaia eta historia aukeratzeari, abestiak aukeratzeari, partiturak egiteari, koreografiak sortzeari, mozerroak aukeratzeari... eta eskolan egiten dogun kontzertu garrantzitsuenetako bat dala esan geinke. Era berean, urtero barrikuntza bat sartzean saiatzen gara: adibidez, joan dan ikasturtean ikasle nagusien bideoak proiektatu ziran, historia- ren hari nagusi lez, eta aurtan be sorpresaren bat egongo da".

ANTZEZLANA

eMcumeak satira musikala Zeanurin egongo da apirilaren 10ean

Erredakzioa

Aprilaren 10ean, 19:00etan, andra sortzaile eta artisten gaineko eMcumeak dakar Zelako Kultur Ideiak-ek Zeanuriko Kultur Etxera. Olatz Beobideren zuzendaritzapean, Maria Riverok eta Itxaso Payak egiten ditue antzerki musikal honetako aktore lanak.

Lanak, umorez, andra sortzaileen egoera ipinten dau mahai gainean, zelan martiaren 8an eta

zemendiaren 25aren inguruan lanez gainezka egoten diran eta urtean zehar lan faltan. "Maria Riverok eta Itxaso Payak kontratazino eta bitartekaritza egiten dauan eMcumeak bulegoan lan egiten dabe. Egunero jasoten ditue, kuota beteteko asmoz, andra sortzaileak behar dituen bezeroen eskariak. Bidean kompetenziak eragindako oztopoak topauko ditue" sinopsian azaldu takoaren arabera.



DANSPIRENAIKA

Hemen da Danspirenaika, Areatzan egingo dan jantza astegoiena

Erredakzioa

Aprilaren lehenengo astegoienean, Arratia tradiziozko jantzearen uriburi mundiala bihurtuko zala agindu eban Aikok eta apirilaren 4, 5 eta 6an, ikastaroak, erromeriak, mazurka klandestinoak eta jantzan egiteko aukera ugari izango dabe izena emon daben jantzazaleek Areatzako eskoletan.

Aprilak 4, barikua

16:30ean, ondoetorria.
17:00etatik 18:30era, Mutildantzak denontzat (Aiko).
18:30etik 20:00etara, La jota de Tafalla (Aiko).
22:30ean, Mazurka Klandestino



Roberto Etxebarriagaz.

Aprilak 5, zapatua

10:00etatik 11:30era, Jauziekin jolasten (Aiko).
11:30etik 13:00etara, La jota de Echo (Silvia Marín Bráviz eta Patricia López Miguel).
13:00etatik 15:00etara, Dantzapotea Jarauta 69 Fanfarrea eta Bizkaiko Gaiteroakaz, kalez kale jantzan eta kantuan, Gudarien plazatik. 15:00etan, Km0 bazkari herrikoa udaletxeko arkupean (eguraldiaren arabera pelotalekuan).
Bazkalondoan, kantaldi-jantzaldia: Argi Zameza, Jarauta 69 Fanfarrea, Bizkaiko Gaiteroak eta Aiko.
19:00etan, erromeria Areatzako Udal Bandeagaz.
22:30ean, Mazurka Klandestino (Aiko).

Aprilak 6, domekea

10:00etatik 11:30era, Fórmulas rítmicas para bailar mejor (Luis Miguel Bajen, Aragoi).
11:30etik 13:00etara, Jotak nahieran/jotas a la carta (Aiko).
13:00etan, Dantzapote/erromeria Aiko taldeagaz herriko plazan edo eskoletako aterpean euria balitz.

LIBURUXKEA

Kosmetikoak egiteko gida bat aurkeztuko dabe Zeanurin

Erredakzioa

Aprilaren 14an, 19:00etan, Garbiñe Larrearen Kosmetikoak sendabelarrekin (Argia, 2024) liburua aurkeztuko egingo da Zeanuriko Kultur Etxean.

Liburuak, gorputzeko atalak garbitu eta zaintzeko oinarriko informazioa jasoten dau eta gorputza eta lurra ez kutsatzeari emoten deutso lehentasuna. "Liburu honen asmoa da sendabedarren erabilera kosmetiko azaltzea eta arlo honetan sakondutea, kosmetika konbenzionalaren arriskuez ohartu arazotea eta berau ordezkatzeko proposamenak egitea, eta holan, egungo eredutik bestelako eredu garbi eta osasungarri batera transizioa egitea".



DUNBA

Kirola eta kirolariak

Dimako eskolako 5. mailako ikasleak

Dimako LH5-eko ikasleak kirolaren gaia landuten gabiz. Geure jaikinguren artean kirol desbardinaren sorrera eta kirolari batzuen biografiak dagoz, euren artean geure eskolako kideak diran eta izan diran Onditz Iturbe, Itziar Zabala eta Amaia Aldai eliteko kirolariak. Galdera asko suertau jakuz eta apurka-apurka horreei erantzuna emotea da geure helburua.

Gaiari buruz sortu jakuzan galderei erantzuteko kirolari batzuk etorriko dira gurera. Aurreko astean Ekhi Ziarrusta egon zan eskupelotearen sorreraz gure zailtzak argitzeko; Euskal pelotearen lehen pausuak diran "boteluze" eta "pasaka"-ren jatorri eta bilakaerea, zelan jokatzan dan, eta abar. Horrezaz gainera, beste hainbat alderdiren inguruan ikasi genduan; peloten ezaugarriak eta eboluzio kronologikoa, besteak

beste.

Proiektuak aurrera egin ahala beste persona batzuk be konbidauko doguz, kirolari buruz euren esperientzia eta eretxiak gugaz partekatzeke. Laster Luis Prietoren bisitea espero dogu, futbolari buruzko geure galderei erantzun eta bere bizipenak entzuteko.

Geure artean be bagara kirolari asko, horregaitik, proiektuari amaiera emoteke, tailer batzuk antolatzea pentsau dogu. Bertan geure eskolako ikasle eta langile guztiek parte hartu ahal izango dabe, patinau, jantzan egin eta fit kid, bote-luze, errugbi eta kirol desbardinak praktiketan ikasteko. Saio horreen helburua kirol barriak ikasi eta batez be, alkarregaz ondo pasetea izango da.

Gai hau landuten gabizala andren presentzia oindino be ez dala oso ezaguna konturatu gara, hedabideetan asko agertzen ez dira-ta. Andra kirolarien baldintzak gatzagoak izaten jarraitzen



Amaia Aldai, Itziar Zabala eta Onditz Iturbe.



dabe eta kirolagaitik jasoten daben dirua ez da izaten nahikoa, horregaitik, nahiz eta profesionalak izan, beste lan bat be egin behar izaten dabe gehienetan. Esfortzu handia eta errekonozimendu eskasa.

Gauzak apurka-apurka aldatzen dabiz, baina asko falta da arlo honetan bardintasuna lortzeako.

Zorionez badaukaguz geure eskolan aldaketa horren adibideak, zorionekoak gu!

AGENDEA

**APRILAK 1
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Hilaren 25ean egingo dan mikro irekian izena emoteko epea zabalik hilaren 20ra arte https://labur.eus/Mikro_Irekia25 helbidean.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Euskaraldian ahobizi edo belarriprest jarduteko norbanakoen izen-emotea zabalik www.euskaraldia.eus webgunean.

BEDIA

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizaua da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

16:30etik 19:30era, hilaren 4ra arte, *Argazkigintza digital* ikastaroan izen-emotea liburutegian. Ikastaroa maiatzeko zapatuetan izango da.

Hilaren 11ra arte, jaietako Kartel Lehiaketara aurkezteko epea liburutegian.

Aprilean, "Ezin dozu galdu" kanpaina. Liburutegian, mailegu bat egitean, fitxa bat emongo da irakurleak beteteko, liburuaren sinopsi laburra azaltzeko eta zergaitik ezin dozun galdu azaltzeko. Kanpainaren ostean, txartela eta liburuak erakusketa baten ipiniko dira.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 20:45era. Arretea: astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

Hilaren 6ra arte emon daiteke izena Udalak 6 eta 13 urte bitartekoentzat hilaren 14, 15 eta 16rako antolatutako Aste Santuko Kanpuserako kiroldegian.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

Maiatzaren 1era arte edo dorsalak amaitu arte, maiatzaren 31n jokatu da Ubide Trail 2025ean izen-emotea kronoak.com webgunean.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

10:00etatik aurrera, urri lehenengoaren 27an jokatu da Gorbeia Suzien 21 kilometroko

lasterketerako izen-emotea dorsalak amaitu arte www.gorbeiasuzien.eus webgunean dagoan loturatik Rockthesport plataforman dagoan formularioa beteta.

ZEBERIO

Liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era, martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.

Arati Galapan eta Mandoia Zeberio Pelota Kirol Klubak antolatuta, hilaren 22tik 25era izango dira 2018tik aurrera jaiotakoentzako kanpuserako izen-emotea 666 025 389 telefonoan.

**APRILAK 2
ARANTZAZU**

19:00etan, Makatzak Arratiako Ekologistak antolatuta, *Eolikoak Mandoian* proiektuaren aurkezpena Kulturgunean.

DIMA

18:00etan, Klima eta energia planaren 3. saioa. Klima aldaketaren aurrean burutu beharreko ekintzak proposatuko dira. Abaroa aretoan.

IGORRE

17:30ean, *Gauzen alde onaren bila* berbaldia Suspergintzaren eskutik Kultur Etxean. Ostean kopaua. Jubiladuek antolatuta.

ZEANURI

18:00etan, *Pornorik ez. Beste sexu hezkuntza baterantz* berbaldia Josune Muñozen eskutik Kultur Etxean. Mazala Andra Taldeak antolatuta.

APRILAK 3**DIMA**

19:00etan, Aitzol Altunaren *Euskararen*



Poesia errezitaldi batez esango deutsie agur Arratia Institutuko ikasleek euren bizitzako etapa bateri

Aprilaren 4an, 18:00etan, Arratia Institutuko Literatura Unibersaleko ikasleek *Garrantzitsua da agur esatea* poesia errezitaldia egingo dabe Igorreko Kultur Etxean.

Poema aukeraketa baten bitartez, agurrak dakarzan alderdien esplorazioa egingo dabe: agur esateak dakarren minaz, nostalgiaz, itxaropenaz eta askapenaz gogoeta eginaz. Eta euren bizitzako etapa bateri esango deutsie agur.

"Eszenaratze intimo eta gogoetsu batez, ikasleek publikoagaz konektetea lortuko dabe, agur esatearen edertasuna eta konplejutasuna ospatzen dauan bidaia emozional baten bidez". Errezitaldi honetarako, literatura unibersalari gorazarre be egingo deutsio.

memoria historikoa berbaldia Abaroan.

ZEANURI

17:00etatik 19:00etara, eguen eta barikuetan eta 12:00etatik 14:00etara zapatu eta domeketan Juanma Nogalesen arte galeria zabalik. Plazan.

17:00etatik 19:00etara, 4-8 urte bitarteko ume eta gurasoentzako Kontuleku irakurzaletasuna familian sustatuz ludotekan.

19:00etan, Ahoztar Zelaletaren *Diagnóstico Tolosaldea. La privatización de la sanidad en el oasis vasco* liburuaren aurkezpena eta berbaldia Kultur Etxean.

**APRILAK 4
AREATZA**

Danspirenaika. 16:30ean, ondoetorria; 17:00etatik 18:30era, *Mutildantzak denontzat* (Aiko); 18:30etik 20:00etara, *La jota de Tafalla* (Aiko); Afaltzeko tartea; 22:30ean, Mazurka Klandestinoa Roberto Etxebarriagaz.

ARTEA

18:00etan, *Klasea edo interseksionalitatea* Kafe tertulia Herriko Bentan. Eztabaidea animetako testu bi egingo dira.

LEMOA

20:00etan, Zelanda taldearen kontzertua Kotxepinen.

**APRILAK 5
AREATZA**

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, mendi urtekera: Ubide-Oketa. Izena emon 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean.

Danspirenaika. 10:00etatik 11:30era, *Jauziekin jolasten* (Aiko); 11:30etik

13:00etara, *La jota de Echo* (Silvia Marín Bráviz, Patricia López Miguel); 13:00etatik 15:00etara, Dantzapoteoa Jarauta 69 Fanfarrea eta Bizkaiko Gaiteroakaz, kalez kale jantzan eta kantuan, Gudarien plazan hasita; 15:00etan, Km0 bazkari herrikoia udaletxeko arkupean, Gudarien plazan (eguraldiaren arabera pelotalekuan); bazkalondoa, kantaldi-jantzaldia: Argi Zameza, Jarauta69 Fanfarrea, Bizkaiko Gaiteroak eta Aiko; 19:00etan, erromeria Areatzako Udal Bandeagaz; afaltzeko tartea; 22:30ean, Mazurka Klandestino Aikogaz.

DIMA

16:30ean, Arratiako Komarkala Bola Txapelketea Bargondian.

IGORRE

11:00etan, umeentzako graffiti tailerra eta jolas erraldoia Kiñu Gaztetxean.

17:00etan eta 19:00etan, Arratiako Musika Eskolako *Cartoons* ipuin musikala Lasarte Aretoan.

ZEANURI

Udebarri Jaie. 12:00etan, lagun arteko jokoak plazan; 14:30ean, bazkaria Kultur Etxean (izen-emotea Txoko Sagarnan); bazkalostean, Edu Zardoyaren kontzertua Kultur Etxean; 19:30ean, karaoke-poteoa eta 22:00etan, DJ Matxinada.

**APRILAK 6
AREATZA**

Danspirenaika. 10:00etatik 11:30era, *Fórmulas rítmicas para bailar mejor* (Luis Miguel Bajen, Aragoi); 11:30etik 13:00etara, *Jotak nahieran/jotas a la carta* (Aiko); 13:00etan, Dantzapote/erromeria Aiko Taldeagaz herriko plazan edo eskoletako aterpean euria balitz.

ARTEA

10:00etatik 14:00etara, Nekazaritzako elikagaien produktuak eta artisautza azokea. Plazan.

DIMA

Bakearen Lore Gara. 12:30ean, ekitaldi instituzionala: lore eskaintzea eta *Euskararen galbide mugarrien* aurkezpena Frontoi txikian; 17:00etan, Dimako ermitetan kanpaikadak.

IGORRE

08:30ean, Kiñu Gaztetxeok antolatuta, Gorbeia igoera. Kotxe kedadea Kiñu Gaztetxean.

17:00etan, zinea, *Superwings maxima velocidad*; 19:30ean, *The Brutalist* Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

Txubelasu Guraso Elkarteak antolatuta herri kirol topaketea plazan. Goizetik umeentzako herri kirol probak egongo dira eta bertan bazkaltzeko aukerea.

18:00etan, *Vidas irrenovables* filma eta Francisco Jose Vaquero zuzendariaren berbaldia Hogarreen. Eolikoak Mandoian proiektuaren inguruan.

**APRILAK 7
BEDIA**

17:30ean, Liburu-maleta ibiltaria Amaia Egidazugaz liburutegian.

**APRILAK 9
BEDIA**

18:00etan, Saioa Hernandez sexologoaren gurasoentzako berbaldia *Zelan berba egin gure seme-alabakaz sexualidadeari buruz* liburutegian.

IGORRE

20:00etan, zinekluba, *Half Moon* (zuzendaria: Bahman Ghobadi) Lasarte

Aretoan.

**APRILAK 10
ZEANURI**

19:00etan, *eMcumek* antzerki obra musikala Maria Rivero eta Itsaso Payagaz. Kultur Etxean.

**APRILAK 11
ARTEA**

19:00etan, Irakurleen Txokoa Eider Rodriguezen *Haragia*. Elaine Agirrek bideratuta Kultur Etxean.

DIMA

18:30ean, ipuin kontaketa musikatua. *Bertoko eta urrutiko ipuinak* Naita Produzioak-en eskutik Abaroa Aretoan. Bariku Txiki.

IGORRE

21:00etan, kontzertuak: Esanezin eta Mandragora Kiñu Gaztetxean.

ZEANURI

12:30ean, *Zer da osasuna zuretzat?* berbaldia herriko medikuaren eskutik. Kultur Etxean. Apuntetako deitu 94 673 91 46 telefonora.

19:00etan, *No Other Land* dokumentala Eguzkiolan.

**APRILAK 12
IGORRE**

Kintoen Eguna. 11:00etan, *photocalla* kintoakaz Kultur Etxeko plazan; 12:00etan, Ardoa Barrura fanfarrea, Kultur Etxean hasita; 14:00etan, On egin! (kintada bakoitxak gura dauan moduan); 17:00etan, Ardoa Barrura fanfarrea herrian zehar; 20:30ean, Gauari erromeria Elexalde kalean.

LEMOA

16:30etik aurrera, Arratiako Banakako Bola Txapelketea.

**APRILAK 13
ARTEA**

13:30ean, Ingot taldearen kontzertua Herriko Bentan.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Paddeington, aventura en la selva*; 19:30ean, *Aun estoy aquí* Lasarte Aretoan.

**APRILAK 14
DIMA**

Hilaren 27ra arte, Dimako Udalekuetarako izen-emotea udaletxean. Udalekuak: Udaleku Irekiak 2020 eta 2013 bitartean jaiotakoentzat, bagilaren 30etik garagarriaren 4ra arte; Udaleku Itxiak, ibiltariak, 2020 eta 2008 bitartean jaiotakoentzat, garagarriaren 7tik 11ra arte; Gazte Abentura 2012 eta 2008 bitartean jaiotakoentzat, garagarriaren 14tik 18ra izango dira.

IGORRE

16:00etan, Aste Santuko Kanpuseko lehen eguna. Kiroldegiko frontoian.

ZEANURI

19:00etan, Garbiñe Larrearen *Kosmetikoak sendabelarrekin* liburuaren aurkezpena Kultur Etxean.

**APRILAK 15
DIMA**

11:00etan, Zirku tailerra eskoletan. Udabarriko oporretako ekintza.

IGORRE

16:00etan, Aste Santuko Kanpuseko

LEMOA

09:00etan, Lemoatx Jubilatuta eta Pentiodunen alkarteak antolatuta Biarritzera txangoa. Tallerretan.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

BULEGOA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Arrigorriagako erdigunean 43 metro karratuko lokala. Guztiz instalatuta eta altzariz homiduta. Interesdunek deitu 665 709 651 telefonora.

LONJEA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Lonjea saldu edo alokatzen dot Igorreko Lehendakari Agirre 9 zenbakian. Interesdunek 674 607 474 telefonora deitu.

LOGELA BILA

Lan eta ikasi modalidadean dabilen ikasle bat logela bila dabil Igorre edo inguruetan. Gitienez urte birako beharko leuke logela. Interesdunek deitu 613 075 822 telefonora.

KAMARA FRIGORIFIKOA SALGAI

Neurriak: 2 m luze, 1,40 m zabal eta 2,20 m altuera. 2.000 euro. Interesdunek deitu edo mezua bialdu 689 119 930 telefonora.

SALTZEAN DODAZ

Lowepro argazkilaritza motxila gorria, neurriak: 26x34x11, prezioa: 35 euro. Umeentzako tipi ohea. 90x190 cm neurrikoa, 90 cm-ko zabalerako koltxoira. Somierra zoru gainean. Kolorea: egurra eta zuria eta prezioa: 90 euro. Interesdunek deitu 661 273 192

telefonora.

EMOTEN DOT

56 m² lur eta obra-hondakin eskaintzen da betegarria egiteko doban, eroatea barne. Interesdunek 607 482 499 telefonora deitu.

LANA

IRAKASLE BILA

Batzilergoko lehenengo mailako ikasle bateri matematika emongo deusn irakaslea topetan nabil. Interesdunek deitu edo bialdu mezua 658 727 613 telefonora.

IRAKASLE BILA

LH 5. mailako ikasle bateri ingelesko klaseak emoteko irakasle bila gabiz. Interesdunek deitu edo idatzi 637 861 936 telefonora.

BEHARGINA BEHAR DOGU

Interna moduan lan egiteko persona bat behar dogu, Soziosanitario tituluduna. Interesdunek deitu 685 704 440 edo 635 207 386 telefonora.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

begitu

1 Areatzako Udalak emondako **Dolu bat eta dolu bi** liburuaren ale bana.

Agustin Kamiruaga (Dima)
Andoni Agirre (Artea)



2 Lemoako Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera Zelanda taldearen kontzerturako.

Gabirel Erdoiza (Lemoa)
Amaia Iruskieta (Bilbo)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 23 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
-
SABINO ARANA 38
IGORRE
-
TEL. 94 631 92 00

Ipini zure iragarkia Begitun
649 979 115
inigoirua@begitu.eus

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-40-54

begitu
eus



BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2025EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz. Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2025ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina dauka martxan Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
 Helbidea: _____
 Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
 Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
 Aukeratu urteko kuotea: 40€ 60€ 80€

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

MATRIKULAZIOA

2025 / 2026 ikasturtea

eingo

kultura eta tradiziozko hezkuntza

679 417 353 @eingotar@gmail.com
 IGORREN - GARBEN

- ADIN MUGARIK GABE
- BANAKA - TALDEKA
- MUGIMENDUTIK DANTZARA
- TRIKITIXA / PANDEROA
- PERKUSIO TRADIZIONALA
pandero karratua, atabala, txalaparta, tanborra...
- PLAZAKO DANTZA
gazteen taldea - helduen taldea

Arratiako mugikortasun galdetegia



<https://labur.eus/mugikortasungaldeketarestekara> sartu edo ondoko QR kodean sartu



*Apirilaren 13ra orduko bete galdetegia.